

“Donien Atxa igotzea sentimendu bat da, Bilboko Marijaia lez”

Hasi da atzerako kontaketa. Justu astebete falta dute Matienan Donien Atxa igo eta sanprudentzioei hasiera emateko. Iaz jausi egin zen txopoa eta lagun bik zauri arinak izan zituzten. Gertaerak oihartzun handia izan zuen. Aurten herritarrek begiak josita jarraituko diote hain errotuta dagoen ekitaldiari. Iratxe, Josu, 'Pete' eta Amaia bertan izango dira, Donien Atxa altxatzen. • 16-17 orrialdeak

ARGAZKIA: LEIHOA ELORRAGA



Sukalde bat gura dute jantokian, bertakoa eta sasoikoa jateko

Erreportajea | Iurretako Orobiogoitia institutuan, Durangoko Zabalarran eta Atxondoko eta Zaldibarko eskoletan ez dago sukalderik, eta Berton Bertokoa dinamikako ki-deek azpiegitura sortzeko eskaria egin diote Jaurilarizari. • 2-3 orrialdeak



Zalduak orain 40 urte zabaldu zion atea saskibaloiri

Zaldibar | Zaldia saskibaloia taldea 1978an sortu zuten. Harrezkero, 40 urte joan dira eta urteurrena ospatzeko jaia antolatu dute biharko. Zalduako eta Tabirakoko emakume beteteranoen arteko partidua da osagaietako bat. Gainera, ospakizuna bikoitza izan daiteke, gizonak mailaz igotzeko aukera dutelako. 26. orrialdea



50. urteurrena ospatuko du Txoritxu Alaik

Dantza | 1968. urtetik daruma dantza taldeak umeak trebatzen. 24. orrialdea



San Antonion errepidea moztu dute segurtasuna eskatzeko

7. orrialdea



Generoa, natura eta partaidetza jolastokian

Durango | Kurutzia ikastolako jolastoki berria inauguratuko dute bihar. 4. orrialdea



Dozenaka guraso, ordezkari eta eragile elkartu ziren bideo kliparen aurkezpenean.

Berton Bertokoa dinamika: gero eta indar gehiago batuta, jantokien eredua aldatzera

Eskola publikoetako sukaldeetan bertako eta sasoiko produktuak jatearen aldeko bideo klipa aurkeztu dute

ZALDIBAR • MARKEL ONAINDIA

Sukalde bat jantokian izeneko bideo klipa aurkeztu zuen Berton Bertokoak joan zen egunean Zaldibarko eskolan, eta aurkezpen huts bat baino, eskoletan bertako eta sasoiko produktuak jatearen aldeko mugimenduak lortu duen indarraren erakusle izan zen. Izan ere, dozenaka lagun eta ordezkari agertu ziren euren babesa adierazteko, eta guztiek batera talde argazkia atera zuten. Gero eta indar gehiago batuta, jantokien eredua aldatzea da euren asmoa.

Aipagarria da eskualdeko alderdi politiko guztien atxikimendua dutela. Zaldibarren egon ziren, askoren artean, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea (EH Bildu), Orlan Isoird Berrizko alkatea (EAJ), Julian Rios Durangoko Herriaren Eskubideako zinegotzia eta Fran Garate zinegotzi durangarra (PP). PSE-EEren babesa era badute, kiderik bertan egon ez bazen ere. Bertaratuen artean egon ziren ere hezkuntza arloko eragileak, neka-

zariak, Kobika jatetxeko Iñigo Kortabitarte sukaldaria, Gorka Lazkano bertsolaria eta, zelan ez, bideo kliparen abestia egin duten Txapito Guzman eta Ibarako Langostinuek taldeko musikariak. Horien doinuekin eta Miren Amurizaren letragaz kantu alai eta dantzagarria sortu dute.

Legebiltzarrean arloa lantzeko sortutako batzordean parte hartzea gura dute

Udara bitartean, astean behin bertako eta sasoiko produktuak eskaintzea eskatu diete enpresei

Aldarrikapen soiletik harago, euren nahiak praktikara eraman ahal izateko lanean dabilza Berton Bertokoako kideak. Eusko Jaurleri-



Dinamikaren bultzatzaileak, politikariek batera ateratako argazkian.

tzako Hezkuntza sailean idatzi bat erregistratu dute, euren egitasmoa onartu dezatela eskatzeko. Sukalderik ez duten ikastetxeetan azpiegitura hori ipintzeko ere eskatu dute; Durangoko Zaballarran, Iurretako Juan Orobiogiotian eta Atxondo eta Zaldibarko eskoletan, hain zuzen ere. Horrez gainera, legebiltzarrean arloa lantzeko sortutako batzordean parte hartzea gura dutela ere jakinarazi diete. Hango legeetan dago jantokien eredua aldatu ahal izateko gakoa.

Catering enpresekin

Bestalde, Urkiola Landa Garapeneren bidez, catering enpresetako ordezkariekin batu dira mugimenduko kideak. Udara bitartean, astean behin bertako eta sasoiko produktuak eskaintzea eskatu diete enpresei.



Jai-giroan egin zuten aurkezpena.



“Sukaldea egonda, egoera oso desberdina izaten da; umeen jarrera aldatu egiten da jatekoaren aurrean”

Lau ikastetxe publikotan sukaldea jartzea eskatu dute

ZALDIBAR • MARKEL ONAINDIA

Euren umeek eskolan jaten dutenagatik kezkatuta dauden gurasoak dira. Bertako eta sasoiko produktuekin elikatzea gura dute, eta eskolako sukaldean bertan kozinatuta gainera. Baina lau ikastetxe publikotan ez dute sukalderik; hori egia bihurtzeko eskaera egin diote Eusko Jaurlaritzari, eta bide horretan laguntzeko udalei. Iñako Gurrutxaga (Iurretako Juan Orobiogitia institutua), Isa Gonzalez (Durangoko Zabalarra eskola), Alex Azpiri (Atxondoko eskola) eta Sergio Gallego (Zaldibarko eskola) dira eskatzailetako batzuk.

Zuen ikastetxeetan sukaldea ipintzea eskatu duzue. Zer egoera bizi duzue? Zelako espazioak dituzue?

Iñako: Bakoitzak egoera bat bizi du. Gure kasuan, Iurretako Juan Orobiogitia DBH eta Batxilergoko institutua da, eta lehen sukaldea egon zenez, lekua badago egon. Ez dagoena tresneria da.

Isa: Zabalarra eskola Hizkuntza Eskola izan zen lehenago, eta horregatik, ez daukagu sukalderako lekurik. Zerbeit berria eraiki beharko litzateke sukaldea edukitzeko. Eusko Jaurlaritzari eskatuta-

“

Enpresek 28.000 plater egin ahal dituzte egunero; ez da berdina 100 edo 28.000rentzat egitea”

“

Goizaldean hasten dira kozinatzen, gero ez dakit zenbat kilometro egiten dituen janariak...

■

ko bileraz aparte, udalari ere egin diogu eskaria.

Sergio: Zaldibarren ez da inoiz egon sukalderik, baina orain dela hogeitabat urte jangela bat ipini zuten. Oso txikia denez, zerbeit berria beharko genuke sukaldea ipintzeko.

Alex: Atxondon eraikina berria da, eta nik uste badugula lekua sukaldea ipintzeko. Geuk ere eskatu diogu laguntza udalari.

Sukaldea ipintzea lortuz gero, jatekoak cateringekoa izaten jarraituko luke momentuz. Beraz, zein abantaila izango luke?

Iñako: Nire kasuan, Orobiogitian eta Maiztegi eskolan dauzkaten umeak, eta Maiztegin sukaldea egotera, oso egoera desberdina izaten da; umeen jarrera ere aldatu egiten da jatekoaren aurrean. Gainera, sukaldea egotetik ez egotera pasatzen dira eta aldaketa igartzen dugu. Jatekoa bertan egitea beste zerbeit da, produktua kanpoko izan arren. Guretzat urrats garrantzitsua da, benetako aldaketa bideratu ahal duelako. Bertako produktua ekartzen badute baina ez badugu sukalderik...

Sergio: Horrelako catering enpresek 28.000 plater egin ahal dituzte egunero; ez da berdina 100entzat egitea edo 28.000rentzat. Goizaldean hasten dira kozinatzen; gero, janariak ez dakit zenbat kilometro egiten dituen...

Alex: Janaria bost-sei ordutan depositu batzuetan egoten da, 70 bat gradutan. Eskolara heltzen denerako propietate guztiak galdu ditu.

Isa: Produktua kozinatzen den

lekuan, propietate guztiak mantentzen dira, osagai nutritiboak, bitaminak...

Bestalde, Bertan Bertokoa osatzen duzenok astean behin bertako produktuak kozinatzea eskatu diezue catering enpresei.

Sergio: Kontziente gara une honetan lurraldea ez dagoela prestatuta egunero bertako produktuak emateko; ez dago ekoizle nahikorik, ez dago transformazio azpiegiturarik... Horregatik, lehenengo pausoak ematen gabilta. Lurraldea antolatu eta bizia emateko modu bat izango zela uste dugu, lehen sektorea berrindartzeko...

Iñako: Sare bat hedatu, jendea pixkanaka kontzientziatu... horretan ari gara, eta hor sartzen dira baita ere catering enpresak. Gauzak aldatzen ari direla konturatu

“

Kontziente gara une honetan lurraldea ez dagoela prestatuta egunero bertako produktuak emateko”

“

Gauzak aldatzen ari direla konturatu behar dira, eta eurak ere [enpresak] mugitu behar direla”

■

behar dira, eta eurak ere mugitu behar direla.

Alex: Urkiola Landa Garapenaren proposamena izan zen gu enprekin batzea. Suposatzen da bertako ekoizleekin berba egiten hasiko

“

Gainera, gaiak ingurunean dakartzan eraldaketa eta hobekuntza nabariak dira”

■

dela, euren artean saretu eta gure eskaerari erantzuteko. Baina sukalderik ez dugunontzat ez dago alternatibarik. Zelan bermatu bertako produktuak kozinatzea? Umeek zer jaten duten kontrolatu gura dugu, eta uneotan ezinezkoa zaigu.

Isa: Bai. pauso hori emango balitz, pena bat izango litzateke, gure eskolatan ezingo genukeelako ikusi.

Azken finean, umeen elikadura hobetzea da zuen helburua.

Sergio: Bai. Hori da gure oinarrizko zutabea.

Iñako: Ez gabilta eskatzen igerileku bat edo futbol-zelai bat.

Alex: Umeen oinarrizko eskubidea da ganorazko elikadura bat edukitzea pertsona moduan garatzeko. Eurek ez dute gaitasunik euren defendatzeko, eta hor sartzen gara gu, gurasook. Gainera, gaiak ingurunean dakartzan eraldaketa eta hobekuntza nabariak dira, eta gaurko ekitaldia [joan zen eguneko] da adibide.

Gorrotu delituen inguruko formakuntza jasoko dute udaltzainek

DURANGO • M.O.

Durango eta Ermuako udalek antolatuta, eskualdeko udaltzainek gorrotu delituen inguruko formakuntza jasoko dute. Arrazismoaren Aurkako Astearen baitako ekintza da, Accem Gobernu Kanpoko Erakundeak eskainitakoa. Elkarre horrek errefuxiatuen, migratzaileen eta bazterkeria arriskuan dauden alde egiten du lan.

Arrazismoa oinarri duten gorrotu delituak hazi egin dira azkenaldian. Horregatik, gizaritari begirako ekintzak ere egingo dituzte. Hilaren 24an eta maiatzaren 17an berbaldiak eskainiko dituzte elkartegian –biak 18:30ean–, eta San Agustinen erakusketa bat egongo da maiatzaren 2tik 9ra bitartean.

Intxaurrandieta eta Errazkinen kasua, Durangon ere presente

DURANGO • M.O.

Aurreko legealdian EH Bildu egon zen Gipuzkoako Aldundiaren gobernuan, eta polemika iturri nagusi izan zen zaborren gestioak oraindik ere zeresana ematen du. Zubietako erraustegiaren plana eten egin zuten orduan, eta gobernu aldaketagaz –EAJ eta PSE-EE daude orain berriro martxan jartzean, sus-tatzaileek EH Bilduko aurka jo dute. Epaietara eraman dituzte Iñaki Errazkin ingurumen diputatu ohia eta Ainhoa Intxaurrandieta hondakinen partzuergoko lehendakari zena. Bada, auzi horri buruzko berbal-dia eskainiko dute Intxaurrandietak eta Igor Melchor kazetariak datorren barikuan, hilak 27, Plateruenean, 18:00etan.

Kurutziaga ikastolako jolastoki berria: genero ikuspegia, natura eta partaidetza oinarrian

Jolas eremu eta Haur Hezkuntzako eraikin berriak dituzte Kurutziaga ikastolan; bihar goizean inauguratuko dituzte

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Bihar inauguratuko dute Kurutziaga ikastolako jolastoki berria, eta nobedadez beteta dator. Izan ere, genero ikuspegia, natura eta partaidetza ditu oinarrian. 11:30ean hasiko da ekitaldia eta Haur Hezkuntzako eraikin berria aurkezteko ere erabiliko dute; Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak, Aitziber Irigoras alkateak, Josune Bañales Euskal Herriko Ikastolen ordezkariak eta Jon Elorrieta Kurutziaga ikastolako presidentek parte hartuko dute inaugurazioan.

Lau urteko barne prozesu baten emaitza da ikastolako jolas eremu berria. Guraso talde batek sustata, ikasleei zelan jolasten ziren galdetu zieten, eta etorkizunean zelako gunea gurako zuten marrazteko ere eskatu zieten. Emaitzetako bat aurreikusitakoa izan zen: jolas eremuan mutilek hartzen zutela protagonismoa. Beraz, horri buelta emateko berrantolatu dute espazioa. Genero ikuspegia duen Durango lehen parkea da,



Ikasleen iritzia ezagutu eta gero, guztiz eraldatu dute jolastokia. Lehiar Elorriaga

eta ahalegin horregatik etorriko da bihar Landaida.

Espazio zabalagoa

Ikasleen desirei jarraituta, naturak presentzia handia du: ibilbideak,

berdeguneak eta egurrezko zabuak topatu daitezke bertan. Tren bagoi batzuk ere berrerabili dituzte.

Gunea 10.000 metrora heldu da, udalaren lagapen bati esker. Trukean, gunea herritar guztientzat

egongo da zabalik eskola orduetatik kanpo. PP ez beste alderdi guztiek onartu zuten tratua udalean.

50 urte bete ditu ikastolak, eta eremu berriagaz begiratuko dute aurrera.

Durango nagusiak kontzientziatu gura dituzte, istripuak saihesteko asmoz

Bide segurtasunagaz eta gidatzeagaz lotutako berbaldia eta tailerra eskaini dituzte



Rios eta Iriondo, ekimena aurkezteko ateratako argazkian.

DURANGO • M.O.

Istripuak saihesteko asmoz, pertsona nagusiak kontzientziatu gura dituzte Durangon. Udalak eta Stop Accidentes elkarteak kontzientziazio kanpaina bat hasi dute, eta Pilar Rios alkateordeak eta Garazi Iriondo elkarteak kideak aurkeztu dute. Iriondo bide segurtasun teknikaria da eta hizlarietako bat izan da.

Aste honetan zehar ekintza bi izan dira; martitzenan bide segurtasunaren inguruko berbaldi bat eskaini zuten, eta atzo gidatzearen inguruko tailer bat.

Pilar Rios alkateordearen esanetan, informazioak eta formakuntzak garrantzi handia dute nagusien segurtasunean. “Uste dugu istripu asko saihestu ahal ditugula adi ibiltzen bagara egunero, harra-paketarik gehienak deskuiduek eragindakoak dira-eta”, azaldu du.

Rios: “Uste dugu istripu asko saihestu ahal ditugula adi ibiltzen bagara egunero”

2016an 22 istripu gertatu ziren herriguneko kaleetan, eta horietatik 8tan adinekoak egon ziren inplikaturak. Iaz hamahirura bajatu zen istripu kopurua, eta 65 urtetik gorako hiru pertsonari eragin zien.

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko apirilaren 20a
16. urtea - 717. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Darpon sailburua: “Durangaldean, seguruenik ez da beharko 24 orduko pediatria zerbitzu bat”

Elkarrekin Podemos alderdiak Eusko Legebiltzarrera eraman du eskualderako 24 orduko pediatriaren eskariaren gaia

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Durangaldean 24 orduko pediatria zerbitzu bat ipintzeko eskaera edo kezka Eusko Legebiltzarrera eraman zuen joan zen barikuan Elkarrekin Podemos alderdiak, Juan Luis Uria parlamentariaren aholik. Durangaldean 24 orduko pediatria zerbitzua ezartzea eskatzeko kanpainak dagoeneko 3.600 sinaduratik gora batu ditu *change.org* atarian.

Uriak gogoratu zuen Durangaldeko hainbat herritar kezkatuta daudela, Durangoko anbulatorioan 17:00ak arte dagoelako pediatria zerbitzua –15:00etatik 17:00etara pediatra bakarra–, eta hortik aurrera larrialdiko pediatria behar badute ospitalera joan behar dutelako. Horri erantzunez, Jon Darpon sailburuak adierazi zuen ez dagoela zerbitzuaren beharrik: “Gainerako eskualdeetan jarri ezin dena Durangaldean ipintzea, nire ustez ezin da baieztatuz. Bestiak beste, seguruenik ez delako behar”. Bere ustez, berez duena baino dimentsio handiagoa eman zaio gaiari.

Uriak Durangalderako eta orokorrean Osakidetzarako pediatria plan bat eskatu zion

“Uste dut gehiago dela arazoaren pertzepzio bat, arazo erreal bat baino. Inor ez dago erreferentziatzko larrialdien ospitale batetik 30 minutu baino gehiagora”, adierazi du.

Uriak, bere aldetik, Durangalderako eta orokorrean Osakidetza-

rako pediatria plan bat eskatu zion Darponi.

Julian Rios Durangoko zinegotziaren ustez, Darponen adierazpenak “lotsagarriak” dira. “Badirudi eskualdeko umeak ez direla garrantzitsuak”, dio Riosek.



Uria eta Darpon sailburua, bigarren planoan, artxiboko irudi batean. Irekia

Atezain-garbitzaile bi eta sorosle bi hautatuko dituzte igerilekuetarako

ATXONDO • JONE GUENETXEA

Uda sasoia gerturatzen ari dela-eta, Atxondoko Udala 2018ko igerilekuen denboraldira begira jarri da. Ildo horretatik, lau behargin hautatzeko prozesua martxan jarri dute. Igerilekuan lan egiteko atezain-garbitzaile bi eta sorosle bi hautatuko ditu Atxondoko Udalak.

Interesa dutenek maiatzaren 7ra arteko epea dute curriculumua udal bulegoan uzteko

Lanpostuotan aritzeko interesa dutenek maiatzaren 7ra arteko epea dute curriculumua udal bulegoan uzteko.

Elkarteentzako laguntzak

Irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek Atxondoko Udalean diru-laguntzak eskatu ahal izateko epea zabalik dago, maiatzaren 2ra arte.

ATE IREKIAK
Apirilaren 26an

BATXILERGOA
2018-2019

Matrikulazio epea:
Maiatzaren 2tik 14ra

www.durangojesuitak.org
Tfnoa.: 946 810 050

Elgetaren gainbehera irudikatuko dute herritarrek Intxortako erresistentzia gogora ekartzeko

Fronteak Elorrion ere eragina izan zuela gogora ekarri guran, udalak ere Intxortako ekitaldiekin bat egin du



Domekan, 12:45ean, Elgetako kaleetan faxisten sarreraren errekreazioa egingo dute.

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Faxisten erasoaldiari eutsi guran, Intxorta inguruan frontea ezarri zuten orain 81 urte. Memoria historikoa babesteko Elorrion sortu berri den Laumunarrieta elkarteak Jesus Aristegi kideak gogoratu duenez, faxisten aurkako frontea oso zabala izan zen. "Intxortaz gainera, Elorrio gainean Erdella mendira eta Santamañezaharrera ere hedatu zen erresistentzia hori", adierazi du Aristegik. Elkartearen ikerketen arabera, Elorrioko frontean 94 pertsona hil ziren.

Izan ere, Gerra Zibilean Fronteak eragin zuzena izan zuen Elorrion. Gerrako komandantzia herrian ezarri zutela gogoratu du Aristegik. Larizen, ospitalea ezarri zuten. Gaur egun Parra taberna

dagoen eraikinean konpainia errepublikarrak zeuden eta BBKren eraikinean, berriz, armen gordailua. Beraz, gerra giroa bete-betean bizi izan zuten.

Ikerketa beka

Laumunarrieta elkarteak, Elo-

Laumunarrieta elkartearen ikerketen arabera, Elorrioko frontean 94 pertsona hil ziren

Elorrion 4.000 euroko beka sortu gura dute memoria historikoa ikertzeko

rrioko Udalagaz batera, memoria historikoa ikertzeko beka sortzeko asmoa du. 2018-2019 ikasturterako, 4.000 euroko beka prest izatea gura dute.

Herritarren antzerkia

Elgetako Udalak, Intxorta 1937 Kultur Elkarteagaz batera, aste biko egitaraua prestatu du Intxortako erresistentziaren 81. urteurrena gogora ekartzeko. Aurten, aldaketa nabarmen bat egingo dute: lubakietako borrokaldien errekreazioa egin beharrean, *Elgetaren gainbehera* izeneko antzezlanaren egingo dute herritarrek domekan, 12:45ean. Jesus Aristegi elorriarrak ere parte hartuko du ekitaldian. "Herritarren laguntza eskatu dute, eta parte hartzea erabaki dut. Antzerkian

Lubakietako borrokaldiak beharrean, 'Elgetaren gainbehera' antzezlanaren egingo dute

Jesus Aristegi elorriarrak, hainbat herritarrekin batera, antzezlanaren parte hartuko du

karlista jantzita joango naiz. García Badilloren laguntzailearen papera egingo dut", dio elorriarrak. Antzezlanaren aurretik, 11:30ean, frontean hildakoei omenaldia egingo diete Intxortako atean. Ostean, Elgetara martxa egingo dute.

XXVI. Castet eguna, faxismoaren kontra hildako zaldibartarrak omentzeko

Hilaren 25ean 81 urte beteko dira Santamañezarreko borrokaldian 40 gudari hil zirela



Urtero lege, jende ugari batu zen Santamañezarren Castet eguna ospatzeko.

ZALDIBAR • A.M.

Faxismoaren kontrako borrokan eta Euskal Herriaren eta askatasunaren alde hildakoak omentzeko, XXVI. Castet Eguna antolatuko dute, domekan. 10:00etan elkartuko dira Zaldibarko udaletxean, igorri ekiteko; Ikurrina tontorrean ezarri, eta argazkia aterako dute ostean. 12:30ean, lore eskaintza egingo dute, eta 13:00etan, Castet elkartearen ekitaldia, "Euskal herriaren eta askatasunaren alde borrokan jausitakoei gorazarre egiteko". Ostean, bazkaria egingo dute elkartearen bertan.

Apirilaren 25ean 81 urte beteko dira Santamañezar mendiko borrokaldian 40 gudari eta miliziano hil zirela. Beraien omenez ospatzen dute Castet Eguna.

Gontzal Mendibilek kontzertua eskainiko du Berano Txiki auzoko jaietan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Berano Txiki auzoan San Jurki jaiek ospatuko dituzte asteburuan. Askotariko ekitaldien artean, musika kontzertu bat nabarmentzen da, Gontzal Mendibil musikari zeanuritarrak eskainiko duena. Domekan 18:00etan, lau hamarkadako ibilbideari erreposoa egingo dio.

Bihar hasiko dituzte jaiek. 19:00etan txopoa jasoko dute, eta herri afarian batuko dira gero. Domekan, 11:00etako mezaren ostean, Gazte Alai dantza taldeak saioa eskainiko du eta, ostean, umeen jolasak egongo dira. 19:00etan ibilaldia egingo dute, Agarrera. Ibilbidea denbora jakin batean egiten duenak sari bat irabaziko du.

Bertsoa eta hitza uztartzen dituen tailerra egingo dute umei begira

MAÑARIA • J.D.

Datorren astean izango den Liburuaren Nazioarteko Eguna harira, gaztetxoaren artean letrekiko zaletasuna sustatzeko tailerra antolatuko du udalak martitzenean, 17:30ean, Mañariko kultur etxean. Bertsoa eta hitza uztartuko dituen ekimenaren bidez eta jolas moduan planteatuta, gaztetxoek, bertsoekin ipuin bat osatzeko aukera izango dute. Hitzekin eta errimekin jolastuko dira, eta denek artean istorio bat osatuko dute.

Txori kantarien lehiaketa antolatu dute udaletxe aurrean, maiatzaren 6rako

BERRIZ • JONE GUENETXEA

Txinbo elkarte ornitologikoak txori kantarien lehiaketa antolatu du Berriz jauregiko lorategian (udaletxe aurreko parkean), maiatzaren 6rako. Antolatzaileek azaldu dutenez, euria eginez gero ekitaldia eskolako patioan egingo dute. Berrizko Udalak babestutako lehiaketan Eibarko eta Barakaldoko adituekin osatuko dute epaimahaia. Besteak beste, txori parte-hartzaileen txorrotxorako gaitasuna neurtu eta baloratuko dute.

San Antonio auzokoek segurtasun neurriak eskatu dituzte errepide erdian

Astelehenean emakume bat hil zen Zornotzako auzoan, N-634 errepidea gurutzatzen zebilela; biharamunean auzotarrek errepidea itxi zuten, segurtasun neurriak eskatzeko



San Antonioko auzotarrak N-634 errepidearen erdian, protestan.

ZORNOTZA • J.D. / M.O.

Astelehen arratsaldean emakume bat hil zen Zornotzako San Antonio auzoan errepidea gurutzatzen zebilela, kamioi batek harrapatuta. San Antonio Euba eta Zornotza herri-gunearen artean dagoen auzoa da eta errepide nazionalak gurutzatzen du. Istripuaren biharamunean auzokideek hiru minutuz moztu zuten N-634 errepidea, protesta modura.

Hildako emakumea Eibarkoa zen eta egun horretan Orue egoitzara joan zen senide bat bisitatze- ra. Egoitzatik bueltan, errepidea zeharkatu behar izan zuen autobusa hartzeko, eta orduan gertatu zen istripua.

Biharamunean, protesta modura, N-634 errepide erdira irten eta minutu batzuetan trafikoa gertzea erabaki zuten auzotarrek. Istripua salatzea eta errepidea gurutzatzeko pasabide seguru bat eskatzea zuten helburu. Izan ere, gaur egun gune horretan ez dago ez zebra biderik ez bidea gurutzatzeko pasagunerik.

Autzaganeko tunelean errei bat bakarrik dago erabilgarri lotuneak amaitu arte

ZORNOTZA • J.D.

Joan zen asteburuan zabaldu zituzten Autzaganeko tunel berri biak, baina ez osorik. Noranzko bakoitzean errei bi daude eta horietako bana dago zabalik trafikora. Izan ere, tuneleko sarrera-irteeretan —alde batean zein bestean— errepide zaharraren eta berriaren arteko lotuneak amaitzea falta da, eta horregatik ez dituzte tuneleko errei denak zabaldu, Aldundiko iturriek azaldu dutenez.

Bestalde, tuneleko ondotik Autzaganeko gainera doan errepide zaharrean oinezkoentzako eta bizikletentzako bidegorria egingo dutela azaldu zuen inaurgurazio ekitaldian Unai Rementeria ahaldu nagusiak. 725.000 euroko aurrekontua izango du.



Gurutze Gorriak kudeatuko du janaria.

Beharrezana dutenentzat janaria batuko dute, asteburuan, Udaberriko Jai Solidarioan

ZORNOTZA • J.D.

Luxury tabernak, beste eragile batzuen laguntzarekin, udaberriko jai solidarioa antolatu du astebururako, Luxury parean dagoen plazan. Gaurtik domekara bitartean, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, eta, La Otra Mirada elkartearen laguntzagaz, hiru egunetan janari bilketa egingo dute, beharrezana duten herritarrei emateko. Gura duenak kilo bat janari eraman dezake plazan bertan jarriko duten postura.

Askotariko ekitaldien artean Dioni Gomezen oroimenezko auzo arteko martxa nabarmendu daiteke. Domekan izango da, 09:00etan. 15 kilometro ditu eta Luxury tabernan egin daiteke izen-ematea, bost eurotan.

Enpresak, herritarrek eta ekintzaileak batuko ditu 'Ekin Lanari' foroak

ZORNOTZA • J.D.

Datorren asteko egunean 'Ekin Lanari' izeneko enplegu jardunaldia antolatu du udalak Zelaieta Zentroan. 09:00etan hasi eta 18:00ak arte, inguruko enpresen, enplegu arloko eragileen eta herritarren topagune izatea helburu duten hitzaldiak eta tailerrak antolatuko dituzte. Gainera, ekintzailezagaz eta prestakuntzagaz lotutako enpresen eta erakundeen hainbat stand egongo dira gune zabal batean.

Ekintzaileekin lotutako enpresa eta erakundeen hainbat stand egongo dira Zelaieta Zentroko gune zabal batean

Zelaieta Zentroko Auditoriumean sei hitzaldi izango dira. Besteak beste, marka pertsonalak sortzeko aholkuak eta gehiago saltzeko teknikak —*Cross Selling* teknika— erakutsiko dituzte hitzaldi banatan.

Sukaldaritza-gelan beste hainbat hitzaldi eta tailer izango dira: lan elkarrizketak zelan landu eta curriculumak zelan osatu erakusteko bat eta ostalaritzako langileei zuzendutako elikadura alergenoen inguruko beste bat, adibidez.



“Konfiantzako giroa dut gogokoen”

Indira Berrizbeitia Ormazabal (Atxondo, 27 urte) Lehen Hezkuntza graduako 4. mailan dago, heziketa bereziko ibilbidean, eta Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokoa bukatzen ari da Mondragon Unibertsitateko Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI).

1. Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik nahi izan dut irakaskuntzan lan egitea eta, horretarako, gradu proposena hau dela iruditu zitzaidan. Nire ama bertako ikasle ohia da, eta bere erreferentzia onak direla-eta, Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen.

2. Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Oso esperientzia aberasgarria izan da. Praktikaldi asko eta nahiko luzeak eduki ditugu, horrek esperientzia eta segurtasuna hartzen laguntzen du. Unibertsitateko lanei dagokienez, hainbat erroka aurkezten dizkigute eta

talde lanean horiei aurre egiten jarduten dugu. Irakaskuntzan sarritan suertatzen diren egoeretan oinarritutako errokak izaten dira; hau da, egoera errealeak.

3. Nola definituko zenuke HUHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia motibagarria da. Izan ere, funtzionaltasuna bilatzen diozu ikasten ari zarenari. Etengabeko kooperazioan jardutea ezinbestekoa izaten da, eta horrek liskarren bat edo beste sortzen du. Baina oso aberasgarria da.

4. Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Orokorrean ematen den tratua

personalizatua da. Oso hurbileko unibertsitatea da, harremanei garrantzi handia ematen zaie eta familia handi bat gara, etxean bezala sentitzen zara. Irakasle eta ikasleen arteko harremanak ere horizontalak dira, hurbilekoak. Konfiantzako giroa dut gogokoen.

5. Etorrizunari buruz, zeintzuk dira zure asmoak?

Nire helburu nagusia lana aurkitzea da, baina irakaskuntzan ez badut lanik bilatzen, beste zerbaitetan lan bat bilatuko dut, sos batzuk ateratzeko asmoarekin, eta bitartean formakuntzan jarraituko nuke, online master batean; alegia, lana eta ikasketak uztartuko nituzke.

360 haur Traña-Matienako Umeen Dantzari Egunean

Abadiñoako Iluntze dantza taldeak antolatuta, domekan XVII. Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute Matienan

ABADIÑO • A.M.

Azkeneko urteetan bezala, eskualdeko ume dantzariak bilduko dira Traña-Matienan. Bertan, 3 eta 15 urte bitarteko 360 haur eta gazte txo bilduko dira. Durangaldeko hamaika taldek parte hartuko dute jaialdian: Udabarrik (Zornotza), Tronperrik eta Kriskitinek (Durango), Andra Marik (Mañaria), Besaidek (Elorrio), Garai dantza taldeak (Garai), Ireminiek eta San Lorentzok (Berriz), Txindurrik (Ermua), eta Talde Batuak eta Iluntze

abadiñarrek. Durangoko Txoritxu Alai dantza taldeak aurten ez du parte hartuko, izan ere, elkartearen 50. urteurreneko ospakizunekin batera ospatuko da Abadiñoako jaialdia.

Egun osoko egitaraua antolatu dute Iluntzekoek. Eguerdian hasiko da jaialdia, eta taldeetako kideek Matiena osoan zehar egingo dute dantza, kalejiran irten eta gero. Arratsaldean, 17:00etan, denek elkarregaz egingo dute dantza, Traña Plazan.



Jendetza batu ohi da Abadiñoan dantzez gozatzeko.

Eztabaida politikorako gune bilakatuko da Abadiño asteburuan

150 bat gazte biltzea aurreikusten dute antolatzaileek; hiru eguneko egitaraua prestatu dute, eta, besteak beste, hitzaldiak, kontzertuak eta tailer praktikoak egingo dituzte



Abadiñoako Gazte Asanbladako kideak topaketarako deialdia egiten.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Eztabaida politikorako gune bilakatu, eta bestelako gizarte eredu bat lortu daitekeela erakusteko helburuagaz, Bizkaiko hainbat gaztetxe eta gazte asanbladek topaketak egingo dituzte asteburuan Abadiñoan. “Aurretik Laudion, Oñatin eta Iruñean antzeko esperientziak izan dituzte, eta gu ere gogotsu gaude hemen horrelako zerbait egiteko”, azaldu du Beñat Gallastegi Abadiñoako gazte asanbladako kideak. Hiru egunean zehar, zenbait teoria politikori buruzko ikuspun-

tuak partekatuko dituzte bertan batuko diren gazteek. “100-150 bat gazte biltzea aurreikusten dugu”,

Topaketekin bat egin duten asanbladen artean, Elorrikoa, Berrizkoa eta Mallabikoa daude

gehitu du Aitor Bizkarra kideak. Eztabaidez gainera, ekintza praktikoak ere egingo dira; Bizkaiko

gazteen, gaztetxeen eta asanbladen arteko sarea ere josi gura dute. Horrela, deialdiari atxikimendua adierazi diotenen artean, Elorriko, Berrizko eta Abadiñoako gaztetxeak daude, adibidez.

Promakos, Erromatik

Langile elkartasuna eta borroka antifaxista jorrotzen dituen Promakos italiarrek hitzaldia eskainiko dute. “Interesgarria iruditzen zaigu beste herrialdeetako errealitateak ezagutzeari”, azaldu dute antolatzaileek.

Ate Irekien jardunaldia izango dute Abadiñoako haurreskoletan

Ate Irekien jardunaldia izango dute bihar, apirilak 21, Zelaieta eta Matienako haurreskoletan. 10:30etik 13:30era, instalazioak, bertako funtzionamendua eta hezitzaileak ezagutzeko aukera edukiko dute gurasoek. 42 plaza daude haurreskola bakoitzean, 0-1 adin tartekoentzat 16, eta 1-2 adin tartekoentzat 26.

Arduradunek Ate Irekien jardunaldian parte hartzera animatu dituzte gurasoak. Bihar joan ezinez gero, telefonoz egin daite-

ke kontaktua, beste egun batean ezagutzeko. Matrikulazio fasea hilaren 30etik maiatzaren 11ra izango da.



Espainiako txapelketa gehiago ez babestea eskatu dio EH Bilduk udalari

IURRETA • MARKEL ONAINDIA

Apirilaren 15ean jokaturako Iurretako Hiri Probak 10 kilometroko Espainiako atletismo txapelketa hartu zuen bere baitan, eta EH Bilduren ustez, “herritar askoren sentsibilitatea mindu zen”. Beraz, horrelako txapelketa gehiago ez babestea eskatu dio udal gobernari ohar bidez.

Bidezabal atletismo taldeari ere zuzendu zaio alderdia. Egingo dako lana eskertu dio, baina Espainiako txapelketarik berriro ez ekartzea eskatu dio, “iurretar askoren sentsibilitatea mindu” delako. Espainiako txapelketan eta selekzioen gaineratik, zazpi herrialdeetako Euskal Selektzioaren alde agertu da EH Bildu. “Euskal Herriaren eraikuntzan denok batera lan egitera” animatu ditu udala eta herritarrak.

Iñaki Totorikaguena EAJko alkategaia izango da berriro udal hauteskundeetan

2007tik alkate denak “gogotsu” hartu du hautagaitza

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iñaki Totorikaguena izango da EAJko Iurretako alkategaia 2019ko udal hauteskundeetan. 2007tik herriko alkate denak azpimarratu duenez, “lehen egunean bezain gogotsu eta kementsu” dago hautagaitzaren aurrean. Gaineratu duenez, “orain, agintaldi

honetarako prestatu genituen proiektuak amaitu behar ditugu, eta herritarrek babesa ematen badigute, Iurreta bizitoki bikain bihurtzen jarraituko dugu, egunez egun gure ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzen”. Egun 48 urte ditu eta Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua da.



Totorikaguena 48 urte ditu eta Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua da.

Mainondo inguruko gunea zelan antolatu pentsatuko dute saio parte-hartzaileetan

Ume, gazte eta nagusiekin hainbat batzar egingo dituzte euren iritzi, proposamen eta ideiak jasotzeko

OTXANDIO • J.D.

Udalak saio parte-hartzaileak antolatuko ditu eskola inguruko guneari zer erabilera eman erabakitzeko. Mainondon dagoen eskola pareko patioaren, frontoi aurreko gunearen eta igerilekutik gora doan bidearen inguruko hausnarketa bateratua proposatuko dute.

Nagusiekin batzar bi egingo dituzte. Maiatzaren 10ean, 17:00etan, Mainondoko kiroldegian egingo dute lehenengoa, eta gura duten herritar denek (irakas-

le, guraso, elkarte...) parte hartu dezakete. *Zer nolako patioa eta Mainondo daukagu gaur?* eta *Zein traba daude oinez, bizikletaz edo autoz hara joateko?* izango dira batzarrean planteatuko dituzten galderetako batzuk. Bigarren batzarra maiatzaren 24an izango da, 17:00etan, toki berean.

Horrez gainera, gazteekin ere lan saio bat egingo dute maiatzaren 5ean, 10:00etan, eta aste honetan zehar umeekin batzen dabilta, euren ikuspegia jasotzeko.



Eskola inguruko guneari buruzko hausnarketa egingo dute saio parte-hartzaileetan.

Musika, bertsoak eta jolasak izango dira, bihar, Otxandioko Udaberri Jaian

Plazan Basajaun taldearen erromeria hasiko da iluntzean; Gaztetxeak ere musika kontzertuak antolatu ditu gauean, Backbone eta Kohatu taldeen zuzenekoekin



Jaia, batez ere, Artekale kalean dauden tabernen inguruan izango da.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion Udaberri Jaia ospatuko dute zapatuan, hainbat tabernariren artean antolatuta. Arratsaldea umeentzako puzgarriekin hasiko dute. 16:00etatik 20:00etara hiru gaztelu puzgarri jarriko dituzte udaletxe pareko plazan. Hirurek euskal kulturagaz zerikusia izango dute. 17:00etan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako saioa hasiko da, Mai-

nondoko gimnasioan. Aitor Etxebarriazarraga, Beñat Vidal, Imanol Uria, Jontxu Martinez, Josune Aramendi eta Lurdes Ondaro arituko dira bertsoan.

Plazan Basajaunen erromeria eta Gaztetxean Backbone eta Kohaturen kontzertuak izango dira

Iluntzean, 20:30ean, Basajaun taldearen erromeria hasiko da. Tolosako taldea orain 20 urte sortu zuten. Estilo anitzeko abestiekin (rocka, rancherak, fandangoak...) osatutako errepertorioa erakutsiko dute.

Gaztetxeak ere kontzertuak antolatu ditu. 23:00etan Backbone eta Kohatu taldeen zuzenekoak hasiko dira bertan.

Amorebieta-Etxano auzolanean

www.amorebieta-etxano.eus

Danon artean Amorebieta-Etxano hobetzen

AMOREBIETA-ETXANO

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

2019

AMOREBIETA-ETXANO

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

2019

Amorebieta-Etxano auzolanean



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

www.amorebieta-etxano.eus



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

Amorebieta-Etxano auzolanean

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

Amorebieta-Etxanoko Aurrekontu parte hartzailea prozesu irekia da eta honen bidez herritarrek udal aurrekontuaren zati bat zertan erabili proposatu ahal dabe.



Errepidea frontoiaren atzealdetik bideratzeko proposamenak ez ditu herritarrak konbentzitu

Plan orokorrean jasotzeko, herritarren partetik ahalik eta sostengurik handiena izango duen irtenbidearen bila dabilta



Gaur egun errepideak erditik zeharkatzen du Izurtzako herrigunea.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen ari dira Izurtzan. Datoren urteetan herriak izango duen garapena zehaztuko du planak, eta gai garrantzitsuenetako bat erre-

pidaren ingurukoa da. Izan ere, gaur egun errepidea herrigunearen erdi-erditik pasatzen da, eta erdigune handiago bat egin ahal izatea eragozten du. Gainera, ibilgailuen abiadura handiak kezka eragiten

du udaleko ordezkarien eta herritarren artean.

Beraz, planeko zirriborroagaz lanean dabilen idazketa taldea arazo horri irtenbidea emango liokeen alternatibaren bila dabil, ondoren

herri batzarretan aurkeztu eta herritarren oniritzia jasotzeko. Plan Orokorren inguruko azken herri batzarrean proposamen bat aurkeztu zuten: errepidea frontoiaren atzetik desbideratzea. Durango-I-

zurtza norabidean txaletak hasten diren inguruan bideak eskumarrantz hartuko luke eta, frontoiaren atzetik, gaur egun aparkalekua dagoen tokitik igaroko litzateke. Ondoren, botika inguruan batuko litzateke gaur eguneko bidera biribilgune batek lagunduta. Horrela, udaletxe eta plaza ingurua trafikotik libre geratuko litzateke eta herrigune handiago bat garatzeko aukera sortuko litzateke.

Errepidea frontoiaren atzetik desbideratzea da batzarrean egin zuten proposamena

Herritarren iritziak baloratzen ari dira, ahalik eta irtenbiderik egokiena bilatzeko

Baina proposamen horrek ez zituen batzarrean batutako herritarrek konbentzitu, udal ordezkariak azaldu dutenez. Orain, batzarrean batutako iritziak eta erantzunak baloratzen ari da planeko idazketa taldea, egoerari ahalik eta irtenbiderik egokiena emateko eta hurrengo herri batzarrean herritarren oniritzia jasoko duen proposamena aurkezten saiatzeko.

“Salmenta oso onak” izan dituzte Garaiko landare azoka jendetsuan

Azokara etorri den saltzaile kopurua nabarmen igo da iaiztik, %20 gutxi gorabehera

GARAI • MARTEL ONAINDIA

Eguraldi ona lagun, Garaiko herrigunea jendez bete zen joan zen domekan, Landara eta Lorazaintza Azokaren seigarren edizioaz gozatzeko. Udalagaz eta Trumoittegaz batera, Urkiola Landa Garapeneko elkarteak izan zen antolatzaile, eta bertako arduradun Juan Mari Totorikak azaldu du “salmenta oso onak” izan zirela.

Totorikaren berbetan, gutxiago saldu dutela izan da ekoizleen sen-

Totorika: “Gure sentsazioa da iaiz baino jende gehiago egon dela aurten”

tsazioa, baina kontua da saltzaile kopurua nabarmen igo dela iaiztik, %20 gutxi gorabehera. Beraz, erosketak igo egin dira eta salmentak banatu. “Gure sentsazioa da iaiz baino jende gehiago egon dela aur-

ten”, dio Landa Garapeneko elkarreko kideak. Gainera, landare asko ikusi ahal izan ziren, eguraldi txarraren erruz ekoizleek ezin izan dituztelako orain arte kalera atera.

Seigarren edizioa da jada, eta asistentzia goraka doa. Aparkaleku falta dute, eta aurrera begira alternatibaren bat topatu gura dute.

Bestalde, aurten Txaro Valverde eta Mila Erkiaga izan dira kontsigna erabiltzeagatik saria jaso duten azokazaleak.



Landare, lore eta erreminta ugari ikusteko aukera eduki zuten azokara joan zirenek. Argazkiak: Joseba Derteano eta Txaro Ortiz de Zarate.





Eraz

Hareek denporak!

MIKELDI SARIA ATHLETIC TALDEARI, SASOI ONAGATIK

Durango Udalak Mikeldi saria ematen zuen iraganean, eta orain hogeituroko ekitaldian, 1998ko maiatzean, Athletic taldearen lana errekonozitu zuen. Pilar Ardanza alkateak Jose Maria Arrate presidenteari eskura eman zion Durango eskultura historikoan oinarritutako oroigarria, Eraz aldizkariaren argazkian ageri denez.

Athleticek 100 urte bete zituen urte hartan, eta horretaz

aparte, lehen taldea egiten ari zen denboraldi edo sasoi bikaina ere goraiatu zuen udalak. Izan ere, Liga bigarren amaitu zuten azkenean zurigorriek, Bartzelonaren atzetik. Horri esker, Txapeldunen Ligara sailkatu ziren gainera.

Aurten denboraldi kaskarra egin du Athleticek, eta ez du ezta Mikeldi saria ere merezi. Baina etorriko dira sasoi hobek! M.O.

Sei hankako mahaia

Dani
Maeztu
Perez
EH-BILDU



Merkataritzagune zale, alkate andre

Bezeroak fidelizatzeko asmoarekin, erosketak egiterakoan deskontuak eskaintzen duen txartela aurkeztu dute Caja Ruralek eta Durango Baik merkatarien elkarteak. Argazkian, alkate andrea, ekimena "babestuz".

Babestuz? Hori galdetzen diot nire buruari. Babestu ala traizionatu? Merkataritxikiak babesteko eta herriak duen bizitza/bihotza indartzeko, bazuen, bai, bere mahai gainean, egun batzuk lehenago, erabaki garrantzitsu bat. Aldiz, babestu ordez,

Babestuz? Hori galdetzen diot nire buruari. Babestu ala traizionatu?

itotzeko hautua hartu zuen. Durango bulego teknikoak txosten ofizial jakina idatzi, alkateak sinatu eta bidali egin zuen Abadiño Udalera. Horrela, Abadiñoekin mugan daukagun lur zati baten kalifikazioa aldatzeko atea ireki zuen. Badakizue zertarako? Dia, Aldi, Lidl edo Mercadona bat jartzeko. Enegarren merkataritzagunea.

Hori da gure EAJk egiten duena: argazkietan herritarrek babestu; eta dokumentu ofizialetan, argazki ofizialik gabe, traizionatu. Benito Jarez politikari mexikarrak esaten zuen bezala: "Malditos aquellos que con su palabra defienden al pueblo y con sus hechos lo traicionan".

Durangoaldea asteen

Kanpaien hizkuntzak duen balioa nabarmentzeko ekimenagaz bat eginez

Iurreta | Europako ondare ez materialaren urteagaz bat egin da, kanpai hotsak zabalduko dituzte Iurretan, apirilaren 21ean, 12:00etan. Kanpaiak eskuz jotzen dituzten herri guztiek egingo dute bat ekimenagaz. Hartara, kanpaien hizkuntzak duen balioa nabarmendu gura dute eta UNESCOk kanpai-jotzea gizateriaren ondare ez material gisa izendatzea lortu gura dute. "Arbasoengandik jasotako tradizio kultural honetaz disfrutatzen" deitu dute.

Zabalik dago izen-ematea uztailean hasiko diren udako tailerretan parte hartzeko

Iurreta | Apirilaren 27ra bitartean eman daiteke izena udako tailerretan parte hartzeko. Aisirako programa elebiduna eta hezigarria izango da eta hiru urtetik hamalau urte bitarteko neska-mutuei dago zuzenduta. Uztailean 2tik 27ra bitartean garatuko diren udako tailerretarako adinaren arabera bost talde osatuko dituzte. Izena emateko, Ibarretxe kultur etxera joan daiteke.

Liburu bat maileguan hartzen duenari arrosa bat erragalatuko diote astelehenean

Zaldibar | Hurrengo astelehenean Zaldibarko liburutegiak Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko du eta, aldi berean, bere urteurrena. Aurten 8 urte betetzen ditu. Azken urteetan bezala, arrosa bat oparituko diote liburu bat maileguan eramaten duenari. Ekimen hau oso arrakastatsua bihurtu da eta oso harrera ona eduki du herritarrengan. Horretaz aparte, aldizkariaren azoka bat jarriko dute, bakoitzak aldizkariak etxera eramateko.



Eroski saltoki handian 500 euro batu dituzte Angelman sindromea elkartearantz

ABADIÑO | Angelman sindromearen aldeko pintxo solidarioa antolatu zuten Abadiño Eroski saltoki handian, joan zen apirilaren 14an. Euro baten truke pintxo bat eskaini zieten bertaratu ziren herritarrei. Gaietarako eta barrirako ere bai, 30 zentimoan. Guztira, 500 euro batu zituzten, eta Angelman Sindromearen elkartearantz izango dira. Elkartekoek ekintza burutu izana eskertu diote Eroski saltoki handiari.

Orain asteburu bi, elkarteko kideek ohorezko satea egin zuten Elorrioko Buskantzen areto-futbol partidu batean. Horrez gainera, partidu horretako sarrerekin batutako dirua ere eurentzat izan zen. Elkartean sortzen diren beharrezko erabiliko dute diru hori.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzirik kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delicatessena - Ardotezia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

R.P.S. 214/06

Podología

Alina Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudariaren kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

Arrike Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Animatu gure Haurreskoletako partaide izaten
**HAURRESKOLETAN HAURREN
 ONGIZATEA HELBURU**

**TRAÑA-MATIENA**

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
 Trañaetxoste, 10 ABADIÑO
 Tel.: 946 202 166
tranamatiena.abadino@haurreskolak.eus

**ZELAIETA**

ABADIÑOKO HAURRESKOLA
 San Trokaz enparantza, 7 ABADIÑO
 Tel.: 946 200 672
zelaieta.abadino@haurreskolak.eus



ATXONDOKO HAURRESKOLA
 Foruen plaza, 7 ATXONDO
 Tel.: 946 859 002
atxondo.atxondo@haurreskolak.eus

**EGUZKILORE**

BERRIZKO HAURRESKOLA
 Margarita Maturana, 4 BERRIZ
 Tel.: 946 826 339
eguzkilore.berriz@haurreskolak.eus

**JULENE AZPEITIA**

DURANGOKO HAURRESKOLA
 San Roke, 4 - behea DURANGO
 Tel.: 946 203 516
julene.durango@haurreskolak.eus



ELORRIKO HAURRESKOLA
 Goieta, 62 ELORRIO
 Tel.: 946 584 907
elorrio.elorrio@haurreskolak.eus

**ETORKIZUNA**

IURRETAKO HAURRESKOLA
 Olaburu, 5 IURRETA
 Tel.: 946 200 937
iurreta.iurreta@haurreskolak.eus

**INTXAURTI**

MALLABIKO HAURRESKOLA
 Intxaurti, 12 - behea MALLABIA
 Tel.: 943 172 003
intxaurti.mallabia@haurreskolak.eus



MAÑARIKO HAURRESKOLA
 Herriko Plaza, 2 MAÑARIA
 Tel.: 946 218 308
manaria.manaria@haurreskolak.eus



ZORNOTZAKO HAURRESKOLA
 Larrea auzoa, z/g AMOREBIETA-ETXANO
 Tel.: 946 730 346
zornotza.amorebieta@haurreskolak.eus

**MATRIKULAZIO
 DATAK**
 Apirilaren 11tik,
 maiatzaren 30era

• www.haurreskolak.eus •

JAIAK!

ABADIÑO - SAN PRUDENTZIO
2018ko APIRILA

San
Prudentzio
Jaiak
2018

TRAÑA-MATIENA
ABADIÑO



Lorategia & Terraza



EROSKI

Jai zoriotsuak opa
dizkizuegu abadiñar guztioi!



EROSKI
Abadiño zurekin



Herrialde Katalanetan horren errotuta dagoen correfoc-a ikusteko aukera egongo da jaietan. **Penya AOAPIX**

Bengala eta suziriek argitutako gaua eskainiko du Oloteko Els Diablos de la Gradera taldeak

Gironako Olot-La Garrotxako Aoapix kultur elkartearen eskutik, Herrialde Katalanetan tradizio zabala duten zenbait ekitaldi ezagutzeko aukera eskainiko dute sanprudentzioek

Matienan astebete falta da kale eta bazterrak jai-giroz betetzeko. Gaur hasiko dute zazpi eguneko atzerako kontaketa. Apirilaren 27an, txopoa altxatzeagaz batera hasiko dira sanprudentzioak Matienan, eta maiatzaren 6a bitartean jaietz gozatzeko makina bat ekitaldi izango dituzte: 50 ekitalditik gora batu dituzte, aurten, San Prudentzio jaietako egitaraua osatzeko. Halaxe azaldu dute antolatzaileek. Horien artean, nabarmentzekoa da Gironako Olot-La Garrotxa herriko (Herrialde Katalanak) Aoapix kultur elkarteak eskainiko duen erakustaldia. Hango ohiturak berreskuratzeko asmoagaz sortu zen elkarte hau, 1988an, eta horretan lanean jardun dute azken 30 urteotan.

Marrans entzierroa eta correfoc-a

Herrialde Katalanetan tradizio handia duten ekitaldiak erakutsiko dituzte Aoapix elkarteak kideek, apirilaren 29an. Marrans edo aharien entzierroagaz hasiko dute eguna, 12:30ean. Goma-aparrez egindako ahari buruekin egingo dute entzierroa, Trañabarren

etorbidean hasita. Traña plazaraino egingo dute entzierroa. Iluntze aldera, Olot-La Garrotxako produktuen dastaketa eskainiko du txerriaren eta bildotsaren laguna den Aoapix elkarteak. Traña plazan izango da hori, 20:00etan.

Gaua sartuta, Herrialde Katalanetan horren errotuta dagoen correfoc-a eskainiko dute. Deabruz mozorrotutako pertsona talde batek bengala eta suziriekin argiztatuko ditu kaleak, infernua irudikatu guran. Oloteko Els Diablos de la Gradera taldeak Traña plazan eskainiko du su artifizialen ikuskizun berezi hau, 23:00etan. Orain sei urte ere izan ziren Matienan Els Diablos de la Gradera taldekoak.

Ikuskizun horiekin batera, sanprudentzioetan urterik urte tradizio handia duten beste ekitaldi batzuk ere batu dituzte egitarauan. Geu Be elkarteak txahal erre eskainiko du maiatzaren 1ean, eta Iluntze dantza taldeak bere ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 5ean. Hilaren 5erako utzi dituzte baita paella eta tortilla txapelketak ere.

Apirilak 27, barikua

18:00 Kuadrilla guztien bilera – Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

20:00 Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen **Ustekabe** fanfarrea, **Iluntze** taldearen dantza saioa eta urteko lagun ospetsua saritzeko ekitaldia.

21:00 Txupinazoa – Txosnaganean.

21:15 Parrillada, Traña plazan.

23:00 Oxabi – Jaialdia, Traña plazan.

Apirilak 28, zapatua

11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

13:00 Done Zezili abesbatzaren erakustaldia.

14:00 Herri bazkaria, Traña plazan.

17:00 Kuadrillen arteko jokoak, Traña plazan.

19:00 Mozorro kalejira **Irultxa** fanfarreak alaituta, Trañabarren kalean.

21:00 Mozorro txapelketako sari banaketa.

22:15 Su artifizialak, tren geltoki ondoan.

23:00 Jaialdia Traña plazan: **Puro Relajo** eta **Garilak 26**.



Jendetza batuko da maiatzaren 5eko tortilla txapelketan



RED HILL

LANGUAGE SCHOOL

606757720-946814282


MAILA GUZTIAK

TALDE BAKOITZEAN

5 IKASLE GEHIHENEZ

ORDUTEGI MALGUA

Zubibitarte 11, Behea ezkerrean
Matiena, Abadiño
www.redhilllanguage.com
redhill.language.school@gmail.com
f Redhill Language School



TONO
ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra
Etxebizitzaren zaharberriak
Merkataritza-lokalak
Baserriak

GREMIOEN
KOORDINAZIOA

686 420 383
946 202 565



MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEEWAY
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO





Azkonizaga

Edari banaketa
GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com

San Prudentzio jaiak 2018

Apirilak 29, domeka

11:00-13:30 Umeendako jolastokia, Traña plazan.

11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

12:30 Marrans-en (aharien) entzierroa. Irteera Trañabarren etorbidean eta helmuga Traña plazan.

16:30 Ginkana, Traña plazan.

17:00-19:00 Umeendako jolastokia, Traña plazan.

19:00 Haur animazioa, Traña plazan: **Reziklator**

20:00 Olot-La Garrotxako produktuen dastaketa, Traña plazan.

21:30 Umeendako jaialdia, merkatu plazan: **Xaibor**

23:00 Correfoc Oloteko **Els Diables de la Gradera** taldearekin Traña plazan.

Apirilak 30, astelehena

12:00 Autodefentsa feminista tailerra, Traña plazan.

23:30 Kontzertua, Traña plazan: **Kaotiko**

01:00 Play Back lehiaketa, Traña plazan.

02:00 Jaialdia, Traña plazan: **Zirkinik Bez**

Maiatzak 1, martitzena

Goizean **Geu Be taldeak** txahal bat erreko du Traña plazan.

10:00 Nekazari azoka, Traña plazan.

11:00 Pilota tailerrak, frontoian.

12:00 Herri kirolak, Traña plazan.

17:00 San Prudentzio pilota txapelketako finala.

18:00 Kalejira **Brincadeira** batukadagaz.

Maiatzak 4, barikua

16:45 Txiki merienda, merkatu plazan.

17:30 Oliver magoa, merkatu plazan.

19:00 Txiki Xef Zigor Iturrietagaz.

22:00 Bertso saioa Errota kultur etxean. Bertsolariak: **Aitor Mendiluze, Miren Artetxe, Txaber Altube eta Aitor Bizkarra**. Gai-jarraitzailea: **Igor Galarza**

22:30 Karaokea, Traña plazan.

Maiatzak 5, zapatua

Goizean, paella txapelketa, merkatu plazan.

10:00 Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian.



Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek taldeak kontzertua emanango du merkatu plazan, maiatzaren 5ean, 17:00etan

12:30 Iluntze taldearen dantza ekitaldia.

16:00 Ugasixo txapelketa, merkatu plazan.

16:30 Umeen betiko jolasak, merkatu plazan.

17:00 Txapito Guzman & Ibarako Langostinuek, merkatu plazan.

17:00 Mus txapelketa, merkatu plazan.

17:30 Tortilla txapelketa, merkatu plazan.

23:00 Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Malassia**

23:00 Kontzertuak, Traña plazan: **Muted, Basque Street Boys eta Eskupitajo**

Maiatzak 6, domeka

12:30 Kontzertua elizan, **Jaizale** Durangaldeko txistularien elkartegaz.

13:00 Kanta Jira: **Done Zezili** abesbatza eta **Trikileku** taldeagaz.

13:00 Perretxiko pintxoaren dastaketa, Pino plazan.

14:00 Jubilatuen bazkaria

17:30 Azahar eta De Norte a Sur taldeen erakustaldia, Traña plazan.

20:00 Donien Atxa kentzea.

Errota Kultur Etxean: kartel lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da apirilaren 23tik maiatzaren 7ra bitartean.

DOHERTY'S
berria

Ondo pasa jaiak!

San Prudentzio, 6
MATIENA - ABADIÑO
Tel: 946 570 149

ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobielako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

MAPFRE
BEGOÑA NAVARRO CAPANAGA
MAPFREKO DELEGATUA MATIENAN

San Prudentzio, 2
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 88 89
navarrb@mapfre.com
www.mapfre.com/oficinas/4837

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

B FUNERARIA BASAGUREN
DURANGALDEKO ERRAUSKETA-LABE BAKARRA
ARRETA ASEGURU-ETXE GUZTIEI

BEILATOKIA - ERRAUSKETA LABEA DURANGO Aliendalde Ind. 8H eta 8J
BULEGOA ELORRIO Ibaikua kalea, 6
www.funerariabasaguren.com
24 orduko zerbitzua: 94 681 09 95 - 94 681 13 47

TANATORIOA

“Sokekin trebetasuna behar da, baina, batez ere, Donien Atxa zuloan sartzerako orduan ibili behar da kontuz”

Tradizioari eutsiz, sanprudentzioei ongietorria egingo dien Donien Atxa igoko dute, apirilaren 27an, Matienan. Iaz inoizko oihartzunik handiena izan zuen, txopoa jausi eta zauritu arinak izan ziren-eta.

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

**San Prudentzio jaietako ekitaldirik jendetsuena heltzeko gogotsu daude Amaia Munitxa, David Nuñez, Josu Urriz eta Iratxe Moreno. Jaiak agurtzeko ordua heldu arte zutik eutsiko dion Donien Atxa altxatuko dute laurak, beste gazte batzuekin batera. Matienan oso errotuta dago ekitaldi hau, eta, aurten, segurtasun neurriak areagotu egingo dituzte, iazkorik gertatu ez dadin. Begi guztiak eurengan izan zituzten iaz, eta aurten ere izango dituzte, seguruenik. Donien Atxa igoko duten leku be-
rean elkartu ditu ANBOTOK.**

Zazpi eguneko atzera kontaketa hasi da Donien Atxa igotzeko. Iazkoaren ostean, ausartuko zarete?

Iratxe Moreno: Bai, eta gogo handiagaz, gainera. Ilusio itzela dugu.

Amaia Munitxa: Ez dugu oso argi non egon ahal izango diren herritarrak animatzeko. Baina, bai!

Segurtasun neurriak areagotuko dituzte Donien Atxa igotzen den momentuan?

David Muñoz 'Pete': Bai. Esan digutenez, 21 metroko segurtasun perimetroa zehaztuko dute. Bestalde, gehienez 12 metroko Donien Atxa jartzea eskatu zizgun udalak. Baina, hala izatekotan, ez genuela txoparik igoko azaldu genien batzar batean. Gutxienez 18 metro artekoa izatea eskatu genien. Gaur arte hori da dakiguna.

Josu Urriz: Trafikoa moztuko da, orain arte lez. Baina, bidegurutzearen inguruko barandetan ez dute utziko inor egoten. Espaloietan ezingo da inor jarri.

Nola ikusten dituzue segurtasun neurri hauek?

Iratxe: Segurtasunari dagokionez, ondo. Baina, egia esan, herritarrak gertu sentitu eta entzun gura ditugu txopoa igotzeko unean. Aurten ez dakigu nola izango den.

'Pete': Zalaparta sortuko delakoan nago.

Amaia: Jendea pilatu egingo da eta ezingo dute ekitaldia ondo ikusi. Baliteke hori ez izatea lekurik aproposena, baina hortxe egon da beti.

Josu: Segurtasun neurriak errespetatu egin behar dira, eta ikusleei ere askotan esan diegu apur bat aldentzeko, gertuegi daudelako. Donien Atxa altxatzen dugunok badakigu jausi egin daitekeela. Iaz gertatu zen, baina ez gugatik. Arketagaz egon zen arazoa. Baina ikusten dauden herritarrak ez dira

arrisku horretaz jabetzen batzuetan. Gainera, ume asko egoten dira aurre-aurrean.

Inoiz ez du iazko oihartzunik izan Donien Atxa igotzeko ekitaldiak. Jausi egin zen eta zauritu arinak egon ziren. Nola bizi zenuen hura?

'Pete': Susto handiagaz. Baina zalaparta mediati-
koa larregikoa izan zen. Euskal Telebista ez ezik, estatuko telebista-kanalak ere etorri ziren (Telecinco, Antena 3...) Ez dakit, larregi iruditzen zait.

Sergio: Susto itzela izan zen, bai. Baina, zorionez, ez zen ezer larririk gertatu. Bestelakoa ematen zuen.

Zer gertatu zen?

'Pete': Donien Atxa bere tokian sartzeko azken bultzada eman behar genuenean, zuloa zegoen arketa mugitu egin zen. Horregaz batera, sartu ahal izateko altxagarria ere mugitu egin zen eta txopoa ziba lez hasi zen bueltaka. Ez dago hori gelditzerik.

Josu: Soketan eskarmenturik ez izatea leporatu ziguten. Gezurra da hori. Egia da sokekin trebetasuna behar dela, baina, batez ere, zuloan sartzerako orduan ibili behar da kontuz. Gaztetasuna eta alkohola aipatu izan dira arazotzat. Jai-giroa izaten da eta trago batzuk jotzen diren arren, Donien Atxa altxatzen duen jendea ondo egoten da.. Behin gertatu zen eta harrezkero mugak jarri izan dira.

Hala ere, ez da jausten den lehenengo aldia.

Josu: Ez. Orain 8-10 urte ere jausi zen. Mutil bati hankara jausi eta orkatila hautsi zion. Donien Atxaren muturreko adarrekin ere min hartu izan du batek baino gehiagok.

Harritu egin zintuzten hartutako dimentsioak?

'Pete': Ikusle batek grabatutako bideoa oso azkar zabaldu izanak harritu ninduen. Gau hartan lanera joan behar izan nuen, eta lankide batek ordu erdira bazeukan irudia mugikorrean.

Iratxe: Bai, kanta bat ere sortu zuten gai horregaz. Bideo bat biral egin zen, eta horregaz abestia ere sotu zuten. Ranchera bat.

Amaia: Iazko sanprudentzioak hasi eta amaitu arte entzun zen kanta hori. Gau hortan bertan, Leonen (Espainian) dudak familiak idatzi zidan, Matienan zer gertatu zen galdezka.

Josu: Ezagun bati Venezuelako lagun batzuek bidali zioten bideoa; berak oraindik ez zeukan.

Hainbat kritika entzun ziren. Gazteegiak zinetela han zeundetenak, parranda bota zenutela...

Amaia: Donien Atxa igotzen dugunok boluntarioak gara. Egunean bertan ematen dugu izena. Batzuek aurretik moztu dute txopoa. Baina, horiez aparte, gura duenak hartu dezake parte. Hala ere, esperientziarik gehien dutenek esaten dute nola igo. Erantzukizuna euren gain hartu, eta besteak leku errazenetan jartzen dira. Hala ere, argi dago segurtasuna aregotu egin behar dela.

Iratxe: Bizi guztia daramagu Donien Atxa nola igotzen den ikusten. Ez da berdina ikustea eta jartzea, jakina, baina beti dago norbait atzean gidatzen zaituena. Hasieran, inork ez du esperientzia handirik, baina denboragaz ikasten dugu denok.

Josu: Belaunaldi aldaketa beharrezkoa da, eta uste dut bermatuta dagoela. Zeresan handia sortu zen iaz, baina jendeak gertatu zena ondo jakin barik egin zuen berba. Ez zen ondo azaldu gertatutakoa.

Josu, zuk daramatzazu urterik gehien. Noiz hasi zinen Donien Atxa altxatzeko ekitaldian parte hartzen?

Josu: Uste dut 14 bat urte izango nituela. Soldaduskara joan behar izan nuen urtea kenduta, hori egon naiz beti. Urte batzuetan ezin izan dut igo, osasuna dela-eta, eta erreleboa pasatu dut zelabait. Baina, azkenean, beti sartzen naiz, lagun-tzera. Txopoa igotzea sentimendu bat da, Bilboko Marijaia lez.

Beharrezkoa da sanprudentzioetako Donien Atxa horren luzea izatea?

'Pete': Auzorako sarreretatik ikusiko den txopoa izan behar du. Gertatu zaigu ere, orain urte bi, enbor lodiegia izatea dagokion zuloan sartzeko. Moztu egin behar izan genuen, lau bat metro edo. Orduan ere, gero kalean entzun behar izan genuen: “A ze txopo ziztrina!”, “zotza ematen du”... Herritarrek ere tamaina bateko Donien Atxa eskatzen dute, altuera handia hartzen duena, ondo ikusiko dena.

Donien Atxa lekuz aldatzea ere planteatu zuten, iaz, udaltzainek. Nola ikusten duzue zuek?

Josu: Nik neuk ez dut hori begi onez ikusten. Gaur egun Nagusien Egoitza dagoen tokian jarri zenekoa dut gogoan. Nire ustez, Matienako gunea nagusia orain txopoa jartzen den bidegurutze hori da.

Iratxe: Nik ere ez dut uste lekuz aldatu behar litzatekeenik.

'Pete': Donien Atxa urteetan jarri da hor. Segurtasun neurriak hartu behar dira, bai, baina ez dut ondo ikusten lekualdatzea.

Amaia: Leku enblematikoa da. Aldatuz gero, ez litzateke berdina izango.

Gutxi zarete Donien Atxa igotzera zoazten emakumeak. Neskak ez dira animatzen?

Iratxe: Lau bat urte dira Amaiak eta biok parte hartzen dugula. Iaz Amaia ezin izan zen etorri eta neska bakarra izan nintzen. Baina ez nintzen bakarrik sentitu. Jendeak asko lagundu zidan,

“Ikusle batek grabatutako bideoa oso azkar zabaldu izanak harritu ninduen. Gertatu eta ordu erdira lankide batek bazuen irudia”

Gisasola Pentsuak
- EKO GARDEN -



Ortuko landareak urte guztian

Trañabarren, 27 - Matiena-Abadiño
Tel.: 946 816 687
gisasola.p@gmail.com

ROTU-NET
LATEX ERROTULUAK




www.rotunet.net

Cafetería Oxford



ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 818 884 (Bizkaia)



ARGAZKIA: LEIHOR ELORRIAGA



- Amaia Munitxa Santos** | 1994
- David Nuñez Cuevas 'Pete'** | 1983
- Josu Urriz Aranguena** | 1963
- Iratxe Moreno Gonzalez** | 1994
- Abadiño**

Sanprudentzioetan Donien Atxa igotzeko orduaren zain daude Amaia, 'Pete', Josu eta iratxe.

eta animatu ere bai, neskok ere izan dezagun presentzia ekitaldian. Neskek nolabaiteko lotsa sentitzen dutela uste dut; baliteke beraien burua hor ez ikustea. Baina horrela hasten da. Parte hartzera animatu gura ditut. Gure aurretik ere parte hartu du neskaren batek.

Amaia: Hala da, bai. Iaz ezin izan nuen parte hartu, baina beti animatu gaituzte parte hartzera. Baina ez da beste neskarik animatzen. Lagunartean parte hartzen dugu guk.

"Neskek nolabaiteko lotsa sentitzen dutela uste dut; baliteke beraien burua hor ez ikustea. Baina horrela hasten da. Parte hartzera animatu gura ditut"

Ikusten duzue jaiak hasteko beste moduren bat? Jendetza batzen da.

Iratxe: Ez, ezinezkoa da.

'Pete': Matienako ekitaldi berezia da, oso gurea.

Amaia: Txopoa igotzean hasten dira jaiak eta hori botatzean amaitu. Igota ez badago, ez dago jairik. **Josu:** Berez ekitaldi oso sinplea da. Ez du aparteko ezer. Baina jenderik gehien batzen duena da. Bai igotzerakoan bai botatzerakoan, jende pilo batzen da bertan.

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR

ARRIANDI

SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

CALIDAD ASEQUIBLE
COMPRUEBALO
CALIDAD ASEQUIBLE

Polígono Urbitarte, 6 - Local 3 - 48220 Abadiño - Tel.: 94 620 26 56 - abadiano@arriandi.com

Betsaide
LANGUAGE SCHOOL

Cambridge English Language Assessment
Cambridge English Exam Preparation Centre

ONLINE SISTEMA BERRIA!

- Cambridge azterketa prestatzaile ofizialak:
KET, PET, FCE, CAE eta CPE
(Irakazle tituludun eta ingelese ama hizkuntza dutenak)
- Udako programa (uztaila):
- ROBOTIKA
- Summer Workshop
- Intentsiboak: FCE, CAE eta English Business (Guzuz eta amatsaldez)

Erezena kalea, 3 - Matiena / 637416438 / www.betsaidelanguageschool.com

% 10 EKO deskontua bodegan

Zure txartelean pilatuko da
Apirilaren 27tik 30era
Kontsultatu baldintzak zure saltokian

Denak

1€

Apirilaren 19tik maiatzaren 2ra arte

SIMPLY
supermerkatuak
DURANGO



Gazteria aktibatzea izango da aurtengo San Prudentzio jaietako Gazte Egunaren helburu nagusia

Apirilaren 30ean herri bazkaria egingo dute gazteek, 14:30ean, eta txartelak Meson eta Tipi Tapak tabernetan erosi ahal izango dira apirilaren 27a baino lehen

Traña-Matienako gazteak batzeko asmoz, auzoko gazte batzuei ideia bururatu, eta orain lau urte I. Gazte Eguna antolatu zuten. Orduz geroztik, jaietako ekintzarik garrantzitsuenetakoa bilakatu da, eta urtero-urtero 200 bat gazte batzen ditu. "Aurten ere auzoko gazteak batzea gura dugu. Badakigu laneguna dela, baina hori ere baloratu genuen eta auzotarrak ondo erantzungo dutelakoan gaude", adierazi du Alex Cuesta Gazte Asanbladako kideak.

Orain hiru urte hasitako bideari jarraituz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du apirilaren 30erako. Eguerditik gauera arte etenik izango ez duen egitarauri autodefentsa feminista tailerragaz emango diote hasiera. "Ez dugu gura Gazte Eguna parrandarako egun bat bakarrik izatea. Horregatik, beharrezko ikusten dugun tailer hau antolatu dugu", jarraitu du Gazte Asanbladako kideak. 14:30ean, txupinazoa jaurti eta herri bazkaria egingo dute. Gazte Asanbladako kideek jakitera eman dutenez, tiketak Meson eta Tipi Tapak tabernetan erosi ahal izango dira apirilaren 27a baino lehen.

Arratsaldean gazteen artean jokoak egingo dituzte eta iluntzean Sakatu elektrotzarangakoekin

batera poteoan ibiliko dira herriko tabernetatik zehar.

Gauean, 23:30ean, Kaotiko talde arabarrak kontzertua eskainiko du txosnagunean. Ostean, ohitura bilakatu den Play Back lehiaketa egongo da. Zirkonik Bez! erromeria taldeak emango dio amaiera egunari.

Gazte Asanbladaren txosna

Bestalde, urtean zehar auzoan beste ekintza batzuk egiteko asmoz, aurtengo San Prudentzio jaietan ere txosna jartzea erabaki dutela jakitera eman dute lokalak hustu eta kaleak betetzeko asmoz lanean dabiltzan gazteek.

Aldi berean, egun osoan zehar Asanbladako balioak transmititzen jardungo dutela jakitera eman dute Gazte Asanbladako kideek. "Gure helburu nagusia auzoko gazteria aktibatzea izango da", azaldu du abadiñarrak.

Horrez gain, egun Gazte Asanbladan konpromiso handirik ez dagoela eta gazteria aktibatzeaz gain apirilaren 30a auzoko gazteei beraien balioak sustatzeko ere baliatuko dutela jakitera eman du Cuestak.



Urtero lez, gazteen artean jokoak egingo dituzte.

Urtebeteko etenaren ostean, bertsolaritzaz gozatzeko aukera egongo da sanprudentzioetan

Txaber Altube eta Aitor Bizkarra abadiñarrak Aitor Mendiluze eta Miren Artetxegaz batera arituko dira bertsotan, maiatzaren 5ean. Saioa 22:00etan hasiko da, Errotan

Iaz Abadiñoako Udalak %30 bajatu zuen San Prudentzio jaietarako aurrekontua, eta bertsozaleek ez zuten aukerarik izan Traña-Matienako jaietan bertsoez gozatzeko. Horrek polemika izugarria piztu zuen herritarren artean.

Aurten, aldiz, urtebeteko etenaren ostean, bertsozaleek jaietako zitarik garrantzitsuenetakoaz gozatzeko aukera izango dute.

Maiatzaren 5ean izango da saioa, 22:00etan, Errota kultur etxean, eta Aitor Mendiluze Euskal Herriko Txapelketako txapeldunordea, Miren Artetxe Lasarte-Oriako bertsolaria eta Txaber Altube eta

Aitor Bizkarra abadiñarrak arituko dira bertsotan. Lau bertsolariak Igor Galarza gai-jartzaile abadiñarraren esanetara arituko dira.

Sarrera mugatuak

Saioa areto barruan izango denez, sarrera kopuru mugatua egongo da. Ondorioz, gonbidapen-txartela hartu beharko dute interesdunek. Apirilaren 30etik aurrera egongo dira eskuragarri txartel horiek, Errota kultur etxean bertan.

Jaietako antolatzaileek adierazi dutenez, pertsonako bi sarrera emango dituzte, gehienez jota.



Gonbidapen-txartela Errota kultur etxean jaso daiteke, apirilaren 30etik aurrera.

Garaje miguel

Arzubia, 10A - 1 Pabiloia
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 91 61
www.garajemiguel.es



**GARBIKETA · TAPIZERIAK
MEKANIKA · GURPILAK**



VANCOUVER
Bar - Cafeteria

Especialidad en
pintxos variados
Rabas los fines de
semana y festivis

Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA
Tel. 94 681 70 39

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Zigor Iturrietak kozinatzen erakutsiko die umeei

Txoriene telebista saioko aurkezleak Txiki Txef ekimena plazaratuko du Txosna Batzordearen eskutik; jolasen eta marrazkien bidez erakutsiko du

Gastronomia, kultura eta hezkuntza bateratuko dituen ekitaldia egingo dute maiatzaren 4an Traña plazan, Txosna Batzordeak antolatuta. Zigor Iturrietagaz Txiki Txef izeneko ekimena antolatuko dute, Eubako sukaldariak umeei kozinatzen erakusteko. ETB1eko Txoriene saioko aurkezleak sukaldarian ibiltzeko aholkuak eskainiko dizkie, eta jolasaren bidez garatuko dituzte errezetak, surik erabili barik. "Frutagaz egitea proposatu diet. Gurasook fruta emateko arazoekin ibiltzen gara beti, eta modu polit bat izan ahal da frutagaz marrazkiak egiten jolasteko eta jaten erakusteko".

Helduekin ere bai

Umeentzako saioa amaitu ostean, helduentzako *showcooking* bat egingo du Iturrietak. Bere ustez, umeekin bezala, pertsona hel-

duen artean ere sukaldaritza zabaltzeko beharrez dago. "Eskoletan sukaldaritza gaiak sartuko nituzke. Ume batez azalduz, gero gutxienez probatu egingo du. Baina, aparte, konturatu naiz jendeak etxean ez duela kozinatzen; hozkailutik mikrouhin aparatua eta kito. Euskal Herriko kulturaren parte izan da sukaldaritza, eta galten dabil".

Janari bilketa

Ekitaldi horren bueltan, janari bilketa bat egingo dute Zaporeak proiektuari laguntzeko. Grezian errefuxiatuei jatekoa ematen lan egiten dute Zaporeak taldeko boluntarioek, eta Traña-Matienako txosnetakoek ekarpena egitea erabaki dute. Galtzen ez diren gauzak eramatea eskatu dute. Garbantzuak, babak, arroza, kontserbak...



Iturrieta, aurretik eginiko 'showcooking' batean.

Muted, Basque Street Boys eta Eskupitajo etxeko taldeak gau berezia sortzeko asmoz

Abadiñoako rock taldeenaz gainera, San Prudentzio jaietan antolatutako egitarauan Kaotiko taldearen zuzeneko da nabarmentzekoa



Muted taldeak orain zortzi urte amaitu zuen bere ibilbidearen lehen zatia.



Basque Street Boys taldekoek jaietarako bereziki sortutako abestia dute: 'Trañakaña'.

Jai egitarauari erreparatu gero, musikak presentzia handia edukiko duela nabari daiteke. Ugari izango dira kalejirak, Trañabarren etorbideko erromeriak eta Traña plazako kontzertuak. Maiatzaren 5erako programatu dute emanaldi interesgarrietako bat: Muted, Basque Street Boys eta Eskupitajo etxeko taldeena. Gau berezi bat sortzeko asmoz igoko dira oholtzara rockzale horiek.

Muted taldearen bigarren etapa

Muted taldeak ibilbide oparoa egin zuen orain hamarkada bat, metalaren arloan. Orain zortzi urte utzi zuten taldea, kideen momentu hartako bizimoduak ez zuelako ahalbidetzen taldeari eskaintzeko denborarik ateratzea. Baina, iaz, taldearen fama sentitu eta bigarren etapa bati ekitea erabaki zuten. Ekainean Durangoko Plateruenean

eskaintako kontzertu batez berragertu ziren taula gainean.

Nostalgiatik tiraka

Muteden itzulerak badu zerbait nostalgiatik, argazki zahar bat partekatzeak piztu baitzuen taldekideen grina. Bada, maiatzaren 5eko kontzertuko beste bi taldeek ere badute nostalgiatik; izan ere, punk eta rockaren bertsiok joko dituzte, besteak beste. Kontzertuak lantzean behin eskaintzen dituzten taldeak dira Basque Street Boys eta Eskupitajo, baina inguruko zale fidelak dituzte.

Kaotiko Gazte Egunean

Bestalde, jaietako kontzertu izarra Kaotikorena izango da. Gazte Egunaren baitan joko dute arabarrek, apirilaren 30eko gauean, gazteen gozamenerako.

Administración de loterías
N.º 1 HIRU
Ondo pasa jaietan!

San Prudentzio, 2 behea MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 200 457 - loteriahiru@hotmail.com

Pinilla
HARATEGIA-URDAITEGIA

Tel.: 946 815 127 · Trañabarren, 29 · MATIENA · ABADIÑO

MATIENAKO ESTANKOA
Trañaeztxoste, 2 MATIENA · ABADIÑO · Tel.: 946 814 033

Talleres Serafín S.Coop
Elorriagazar, 11
Tel.: 94 681 48 07
48220 MATIENA-ABADIÑO

“Elkarte nahiko berria izanik, txupina jaurtitzeko aukera eskaintzea itzela da gure elkartearentzat”

Ilusioz hartu dute AMEko kideek San Prudentzio jaietako pregoia irakurri eta txupina jaurtitzeko ardura, eta esker ona agertu diote Txosna Batzordeari



Mikel Petite Guenaga
AMEko kidea

Abadiño | 1978

Oskar Elorriaga Jauregi
AMEko kidea

Abadiño | 1985

Abadiñoko Merkatarik Elkartearen arduratuko da 2018ko San Prudentzio jaietako txupina jaurtitzeko. Aurretik, abadiñarrei herriko komertzioetan erosteko deia egingo diete, horrek herriari bizitasuna emango diolako. Horrez gainera, Txosna Batzordeko jendeari eskerrak eman gura dizkiote. 2016ko urtarrean elkarteak jaio zenetik, hainbat ekitaldi egin dituzte Abadiñori beste bizitasun bat emateko, eta bestelako kontsumo eredu bat sustatzeko herritarren artean. Elkartearen kideak arduratuko dira 27ko pregoia irakurtzeko eta txupina jaurtitzeko. AMEko kide diren Mikel Petitegaz eta Oskar Elorriagagaz berba egiteko aukera izan du ANBOTOK.

Nola hartu duzue txupina jaurtitzeko eta pregoia irakurtzeko ardura?

Oskar Elorriaga: Eskertzekoa da. Horrek esan gura du

2018ko San Prudentzio jaietarako telazko boltsa batzuk aterako dituzte, AMEren irudia herritarren artean zabaltzeko

jendeak baloratzen duela guk egiten dugun lana, eta baloratzen duela martxan jarri dugun elkarte bera ere.

Mikel Petite: Hori da. Elkarte nahiko berria garena kontuan hartuta, are balio gehiago du horrek. Txupina jaurtitzeko gutaz gogoratu izana gauza handia da gure elkartearentzat.

Pentsatu duzue txupina jaurti aurretik zer esango duzuen?

M.P.: Oraindik ez dugu pentsatu, baina Txosna Batzordeko jendeari eskerrak ematea izango da egingo dugun lehenbiziko gauza; txupina botatzeko aukera eskaintzea sekulakoa da guretzat. Hainbat lagun igoko gara oholtzara, elkartearen ordezkari legez.

2016ko urtarrean jarri zenuten martxan elkarteak. Zer nolako balorazioa egiten duzue?

M.P.: Balorazio positiboa. Pixkanaka bada ere, gau-

zak egiten gabilta-eta. Hasierak gogorak izaten dira beti, baina saiatzen gara ahalik eta lan txukunena egiten.

O.E.: Hasiera potente bat tokatu zitzaigun, baina bagabilta lanean.

Zenbat kidek osatzen duzue elkarteak gaur egun?

M.P.: Hogei merkatarik osatu genuen hasieran elkarteak, eta egun 26k osatzen dugu. Beste merkatarik batzuk sarritan etorri zaizkigu esaten elkartearen izena emateko aukera aztertzen ari direla. Egia esateko, gauzak egin ahala, gero eta jende gehiago animatzen ari da gugaz beharra egitera.

Nola funtzionatu duzue?

M.P.: Ez gara maiztasun finko batez batzartzen. Ideiak sortu ahala batzen gara, eta horiek eztabaidatzen ditugu. Hala ere, teknologiei esker errazagoa egiten zaigu gauzen berri ematea eta jendearengana heltzea.

O.E.: Momentuz, ez dugu dinamika finkorik. Gutxi-naka-gutxinaka, baina aurrerapausoak ematen ari gara. Arazoak identifikatu, soluzioak proposatu, eztabaidatu eta konpondu.

Arazo diozuean, zeri buruz zabilzate?

O.E.: Erakundearen aldetik ez dago babesik komertzioarentzat, hemen behintzat. Gure artean antolatzearen asmoagaz hasi ginen batzen, baita bestelako komertzio eredu bat gura dutenei hemen gaudela esateko ere.

Zelako ibilbidea egin duzue orain artean?

M.P.: Iaz, data hauetan nahiko gauza egin genituen. Adibidez, barraketarako fitxak banatu genituen bezeroen artean, eta, horrez gainera, txaranga bat kontratatu genuen herriko kaleak girotzeko.

O.E.: Une honetan, formakuntza saioak ere egiten ari gara, udalagaz batera. Guztion artean ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzea da asmoa, ahalik eta komertziorik erakargarriena. Egoera hobetzeko baliagarria izango da.

M.P.: Gabonen bueltan, adibidez, zuhaitz bat ezarri genuen elkartearen denda bakoitzean. Komertzio bera apaintzeko gainera, herria ikusgarriago eta erakargarriago egoteko baliagarria da, baita ere. Beste poztasun bat ematen die herritarrei ere.

Eta aurten?

M.P.: Telazko poltsa batzuk ateratzeko asmoa dugu. Gure irudia jende artean zabaltzeko baliagarria izango da.

Mezurik abadiñarrentzat jaietarako?

M.P.: Komertzioak ere hemen gaudela, eta etortzeko gu bisitatzera.

O.E.: Hori, eta kanpokoak ere datozela Abadiñora, ondo pasatzera!

neumáticos ETXEBARRIA

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak) - Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com





Apirilak 26
20:00etan
Ikastolako jolastokian



Ekitaldia 'Txotxe'ren omenez

ANTZERKIA | Omenaldi ekitaldia egingo dute Kurutziaga ikastolan lankide, irakasle eta lagun zuten Jose Martin Urrutia 'Txotxe' gogoratzeko. Datorren egunean izango da ekitaldia, hilaren 26an, 20:00etan.

Apirilaren 20an

DURANGO antzerkia
Eneko Haritza ipuin kontalaria 'Lurra hitzez eta ahotsez' egitasmoaren barruan, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

DURANGO antzerkia
'Jauria' antzezlana Bizkaiko Antzerki Ikastegiaren eskutik, 20:00etan, San Agustin kulturunean.

ZORNOTZA antzerkia
Hika antzerki taldearen 'Txerriboda' antzezlana, 20:15ean, Zornotza aretoan.

ELORRIO antzerkia
'Monteverdi. Quarto Libro dei Madrigali' antzezlana, 20:30ean, Arriolan.

DURANGO musika
'Plater Dema' DJ Bekosue eta DJ Barraskillerren eskutik, 20:30ean, Antonio's tabernan.

DURANGO musika
DJ Lorontzi Udaberri Festan, 00:00etan, Intxaurre elkartearen.

DURANGO musika
Paco Eskorbuto, Etsaiakeroak eta El Exterminio de la Raza Humana taldeen kontzertua, 22:00etan, Plateruenean.

Apirilaren 21ean

IURRETA hitzaldia
'Sin fronteras, libros sin límites' topaketa-hitzaldi-tailerra, 11:00etan, herri bibliotekan.

IURRETA ekimena
'Iurretako kanpai hotsak lau haizetara', 12:00etan, plazan.

OTXANDIO bertsolaritza
Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Udabarri faseko 3. saioa, Aitor Etxebarriazarraga, Beñat Vidal, Lurdes Ondano, Imanol Uria, Jontxu Martinez eta Josune Aramendigaz, 17:30ean, Mañondoko gimnasioan.

DURANGO dantza
'Alarde de Danzas', Centro Palentino Castellano leonesek antolatuta, 18:00etan, San Agustin kulturunean.

ELORRIO musika
Cobra eta Ikarass taldeen kontzertua, 22:00etan, gaztetxean.

Apirilaren 22an

DURANGO antzerkia
'El Cuento de la Azuzaina' antzezlana, Limiar Teatroren eskutik, 18:00etan, San Agustin kulturunean.

Apirilaren 21ean eta 22an

DURANGO lehiaketa
'24 Ordu Paperean' sorkuntza jolasa Sorginolako Ateneoak antolatuta, apirilaren 21ean, 12:00etan, Sorginolan.

Apirilaren 25ean

DURANGO deialdia
Durangoko Autodefentsa feminista asanbladaren lehenbiziko batzarra, 18:30ean, Pinondo Etxean.

ELORRIO deialdia
'Arabako Errioxan erabakitzea' hitzaldia, Gabriel Frias del Val ABRAko lehendariaren eskutik, Gure Esku Dagok antolatuta, 19:00etan, Iturrin.

Apirilaren 27an

DURANGO hitzaldia
'Angula Ustelak' elkartasun biraren baitan, Ainhoa Intxaurrendieta eta Igor Melchor (Periodista Canalla) arituko dira hizlari legez, 18:00etan, Plateruenean.

Apirilaren 30ra arte

IURRETA lehiaketa
'IkimilikiliKLIK' argazki lehiaketa. Udalak herritarrek sortutako mezuak jaso eta zabaldu gura ditu herrian. Argazkiak sare sozialen bidez edo ikimilikiliklik@gmail.com helbidera bidali daitezke.

Apirilaren 10etik ekainaren 19ra

BERRIZ ikastaroa
14 urtetik gorako emakumeentzat argazki ikastaroa (izena emateko azken eguna, apirilaren 6a), 18:00-19:30 (martitzenero), Kultur Etxean.

Apirilaren 20tik 22ra

ZORNOTZA jaia
'VI. Udaberriko jai solidarioa' hiru eguneko egitarauagaz, Luxury taberna pareko plazan.

ABADIÑO deialdia
'Bizkaiko gaztetxe eta gazte asanbladen Topaketa, gaztetxean eta Zelaietan.

Apirilaren 30ean

DURANGO deialdia
Auto klasikoen kontzentrazioa, 10:30ean, Herria auzo elkarte parean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Un Lugar Tranquilo
Durangon

Zine- ma

:: Berriz
KULTUR ETXEA

The Party
barikua 20: 22:00
zapateria 22: 19:00

:: Durango
ZUGAZA

• **Un Lugar Tranquilo**
barikua 20: 19:30/22:00
zapateria 21: 18:30/20:30/22:30
domeka 22: 18:30/20:30
astelehena 23: 18:30/21:00
martitzena 24: 20:00
eguaztena 25: 20:00

• **Campeones**
barikua 20: 19:30/22:00
zapateria 21: 19:30/22:30
domeka 22: 18:30/21:00
astelehena 23: 18:30/21:00
martitzena 24: 20:00
eguaztena 25: 20:00

• **Custodia Compartida**
barikua 20: 19:30/22:00
zapateria 21: 19:30/20:30/22:30
domeka 22: 18:30/21:00
astelehena 23: 18:30/21:00
martitzena 24: 20:00
eguaztena 25: 20:00

• **El Príncipe Encantador**
zapateria 21: 17:00
domeka 22: 16:30

:: Elorrio
ARRIOLA

• **Celestial Camel**
zapateria 21: 22:00
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00

• **Oin Handiaren Semea**
domeka 22: 17:00

:: Zornotza
ARETOA

• **Campeones**
zapateria 21: 19:30/22:00
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:15

• **Rabbit School**
domeka 22: 17:00



Zapatuan, 22:00etan,
jendaurreko behaketa
astronomikoa eskainiko
du Izarra elkarteak,
Zuhatzola parkean.

“Hegaztien argazkietarako, jarri eta itxarotea tokatzen da, borroka edo hegaldiren bat noiz gertatuko den prest”

Maiatzaren 5ean jakingo du Jesus De Pedrok bere argazkietako batek World Photography Cup-eko Natura ataleko sari bat irabaziko duen ala ez



Jesus De Pedro Garcia
Argazkilaria

Zornotza | 1954

Alex De Pedro Izaguirre
Argazkilaria

Zornotza | 1980

Zer da gehien gustatzen zaizuena argazkiak ateratzeko?

Jesus: Naturari argazkiak ateratzea ihesbide moduko bat da niretzat. Guk erreportaje sozial eta industrialak egiten ditugu gehienbat, argazki-denda bati dagokion bezala. Bestelako argazkiak ateratzea terapia moduko bat da niretzat.

Alex: Gustuko dugu gure lana, noski. Adibidez, ezkontzetan ere asko ikasten da; jendea ezagutzen duzu eta argazki berriak probatzeko au-

“**Digitalean zein analogikoan, beti izan da berdin: mila argazki atera behar dira bakar batek balio izateko**”

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
Jesus eta Alex De Pedro aita-semeek argazki-denda ezaguna dute Zornotzan Jero Izaguirregaz [emaztea eta ama, hurrenez hurren] batera. Urteetako lanaren aitortza nazioartetik ere heldu zaie, izan ere, Jesusen argazki bat World Photography Cup lehiaketako finalerako izendatu dute.

Nola atera zenuen argazki finalista?

Jesus: Kanpainan ez gaudenetan, asteburuetan irtenaldiak egiten ditugu gustuko ditugun argazkiak ateratzeko. Burgosera [Espainia] joan nintzen hegazti sarraskijaleei argazkiak ateratzera. Han jarri eta itxarotea tokatzen da, borroka-aren bat, hegaldiren bat edo edozer gertatzen denerako prest. Kasu honetan, gose dira animaliak eta borrokan egiten dute haragiagatik. **Zenbat argazki atera zenituen hor?**

Jesus: 800 inguru egingo nituen, oso arin doa guztia-eta. Gaitza da azaltzeko, bizi egin behar duzu. Une batean gauza mordo gertatzen dira: keinuak, mugimenduak... eta horiek erregistratu bakarrik ez, enfokatu ere egin behar duzu...

Alex: Neurria hartu, enfokatu... ez da botoia sakatzea bakarrik.

Jesus: WFC eta horrelako lehiaketetan, argazkiak balio ahal izateko,

“**Une batean gauza mordo gertatzen dira: keinuak, mugimenduak, eta horiek erregistratu egin behar dira**”

begia enfokatu ere egin behar da, adibidez. Horixe da argazki mota

horien zailtasuna, baina horrek egiten du, aldi berean, dibertigarri. **Teknologiak asko erraztu du argazkilaritza?**

Jesus: Lehen, kamera analogikoa ere bazegoen argazki-sortak egiteko aukera, baina errazagoa da kamera digitalagaz. Gainera, beti atera izan dira mila argazki, argazki bakar batek balio izateko. Hori bai, argazki ona lortzeko, ezinbestekoa da leku onean egotea, ondo

enkeadratzea eta une egokian ateratzea, jakina.

Noiztik datorkizue argazkilaritzarako zaletasuna?

Alex: Niri familiatik datorkit.

Jesus: Txikitatik erakarri nau. Argazkilariak euren kamera, bateria eta flashak zintzilik ikusita zaletu nintzen; barruraino sartu zitzaidan irudi hori. Baina, batez ere, magiak erakarri ninduen, karretea nola bilakazen den irudi klik bategaz.

kera duzu. Bestela, lagun bategaz bizikleten katalogoak egiten gozatzten dut; lehenbizi, ohiko argazkiak egiten ditut, eta gero angelu berriak probatzen ditut, adibidez.

Jesus: Argazkiaren alde artistikoa jorratuz disfrutatzen dut gehien, gero saltzeko errazena ez izan arren; asko gozaten dut ateratzeko uneko magiagaz eta konplizitateagaz. Garrantzitsua da argazkilariak begirada artistikoa edukitzea.

World Photography Cupeko gala, eguaztenean; sari banaketa, maiatzaren 5ean



ARGAZKILARITZA • A.M.

Herrialde bakoitzetik 50 bat argazkik parte hartzen dute World Photography Cup lehiaketan, hautaketa probetara milaka argazki aurkezten badira ere. Lehiaketa 2013az geroztik egiten da, eta FEPPi argazkilaria espainiarren el-

karteak parte hartzen duen hirugarren aldia da; De Pedrotarrek, ostera, aurten lehenengoz hartu dute parte lehiaketan. Jesusen argazkiak (eskumakoa) finalerako txartela lortu du. Alex semearena, ostera, finalurrekoetan geratu da.

Txoritxu Alai: mende erdi Durangoko umeak dantzan jartzen

50 urte igaro dira Txoritxu Alai dantza taldea sortu zenetik, eta egun osoko egitarauagaz ospatuko dute zapatuan

DANTZA • A.M.

Umeei euskal dantzak erakusteko asmoagaz jaio zen Txoritxu Alai dantza taldea, orain mende erdi. Tronperri dantza taldearen inguruan zebilen lagun talde baten ekimenez jaio zen, umeak trebatzeko zegoen gabezia arduratuta. “Orduan, gabezia hori nabaria zen, baita inguruetako herrietan ere, eta hori aldatzeko gogoz jaio zen taldea”, azaldu du Jokin Garitaonandia zuzendaritza batzordeko kideak.

Egun osoko egitarauagaz ospatuko dute 50 urteko ibilbidea, eta kalejira batez abiatuko dute. “Jendea dantzan egitera animatzea da gura duguna”, dio Garitaonandiak, kalean daudenei ere dantzariekin bat egiteko deia eginez, bide batez. “Dantzari ohiak zein kalean egongo direnak ere batu daitezela gura dugu”, gehitu du Leire Renovalesek. Renovalesegaz eta Garitaonandiaz batera, Lorena Urienek eta

Janire Quevedok osatzen dute zuzendaritza batzordea. Ostean, Plateruenean bazkalduko dute, 100 bat lagunek. Arratsaldean, taldearen ibilbidea laburbilduko dute, argazki erakusketa bat eginda. Akerbeltzegaz dantzan amaituko dute eguna.

Gorabeherak eduki arren, osasuntsu ikusten dute Txoritxu Alai

Kalejira, bazkaria, argazki erakusketa eta Akerbeltzen kontzertua egongo dira

taldekideek. Bere garaian, 2.000 bazkide inguru izatera iritsi ziren (1.000 ume eta 900 bat heldu). Orain, 200 bazkidek osatzen dute Txoritxu Alai; horietako 70 dantzariak dira (50 umeak eta 20 nagusiak). “Gu pozik gaude, Durangon, hiru dantza taldegaz, ez da gutxi”.



1968an Mugarrikolandako iturria inauguratu zuten Txoritxu Alaiko dantzariak.



Peru Astigarraga bertsotan, Bilboko saioan. BITTOR URIARTE.

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa Durangaldera iritsiko da, bihar, Otxandioko saioagaz

Domekan, eskualdeko Iker Apraiz eta Txaber Altube lehiatuko dira, Ondarroan egingo den saioan

BERTSOLARITZA • A.M.

Udabari faseko hirugarren saioa jokatu da zapatuan, Otxandion. Bertan arituko den seikotea Aitor Etxebarriazarraga, Beñat Vidal, Lurdes Ondaro, Imanol Uria, Jonxu Martinez eta Josune Aramendi bertsolariak osatuko dute. Saioa 17:30ean hasiko da, eta Mañondoko gimnasioan izango da.

Domekan, ostera, saio bi egongo dira, biak Ondarroan. Arratsalde-

koan Iker Apraiz atxondarra eta Txaber Altube abadiñarra arituko dira bertsotan, Aitor Arrizubieta, Illart Gumuzio, Inazio Vidal eta

Domekan, saio bikoitza egingo da Ondarroan: bata, 12:00etan, eta bestea, 17:30ean

Lander Ibarluzeagaz batera. Gazte txean izango da, 17:30ean. Goizeko saioa 12:00etan hasiko da.

Astigarraga, laugarren

Udabarriko faseagaz —apirila eta maiatza— hasi da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Apirilaren 14an lehenengo saioa jokatu zen, Bilbon, eta han Ekaitz Larrazabal ‘Katxo’ gailendu zen; Peru Astigarraga iurretarrak laugarren amaitu zuen, 140 puntugaz. Bertsolari iurretarra lehenengoz ari da txapelketan parte hartzen.

El cuento de la Azuzaina
Limiar Teatro
Apirilak 22, domeka
18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DUBANGERO USALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PAKO ESKORBUTO + ETSIAIKEROAK
Apirilak 20 22:00etan
Kontzertua

ANGULA USTELAK
Apirilak 27 18:00etan
Hitzaldia

UNAX NOGA
Maiatzak 6 13:00etan
Kontzertua

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatekx@plateruena.net

Plateruenak 80ko hamarkadako punk doinu gordinetara egingo du jauzi

Etsaiakeroak eta Pako Eskorbuto taldeek garaiko klasikoak berreskuratuko dituzte



Jon Estankona durangarra Etsaiakeroak taldeagaz kontzertu batean.

MUSIKA • A.M.

Ia kasualitatez sortutako ideia bat penintsula zeharkatuko duen bira bilakatu dela aitortu du Etsaiakeroak taldeko Auro abeslariak. Hain zuzen ere, Plateruenean abiatuko da, gaur, Etsaiak taldearen errautsetatik jaiotako taldeak eta Pako

Eskorbuto egingo duten bira. “Banekien berriki Pako Latinoamerikan ibilia zela taldeagaz, bere garaian gu ibili ginen bezala. Edukitako esperientzia bikainez berbetan hasi, eta elkarrengaz zerbait egiteko aukera itzela litzatekeela pentsatu genuen”, adierazi du Etsaiakeroak

Gaur hasiko den bira Galiziatik, Herrialde Katalanetatik eta Madriletik ere igaroko da

roak taldeko kideak. Pentsatu eta ekin. Galizia, Herrialde Katalanak, eta Madril bisitatuko ditu birak, besteak beste. Gogotsu daude talde biak erronka berri honen aurrean. “Lan berriaren aurkezpen kontzertu batzuk ere eskaini ditugu. Azken hilabete bietan, baina, bira honetarako jo eta su entsetzen egon gara”.

Kontzertuan, Etsaiakeroak abestiak Etsaiakeroen klasikoekin uztartuko dituzte lekeitiarrek. “Gara zaharrak gogoratuko ditugu, noski. Izan ere, badakigu hasierako garaietako jarraitzaileak zein zale berriak etorriko direla kontzertuetara”. Etsaiakeroak eta Pako Eskorbuto gaz batera, El Exterminio de la Raza del Mono taldea arituko da.

Durangar bat Etsaiakeroekin

Etsaiakeroen errautsetatik jaiotako taldeak *Lur Errebeldean* lana kaleratu zuen iazko Durangoko Azokan. Doinu pisutsuagoak jorratzen dituzte bertan, eta, hein handi batean, norabide aldaketa hori Jon Estankona bateria-jotzaile durangarraren eragina izan dela aitortu du abeslari lekeitiarrek. “Jende askok esan digu disko berriari Sepulturaren eta antzerakoekin ukitua dutela abestiek. Jon horien zale amorratuak da, baita bateria-jotzaile oso ona ere, eta horrek eragina izan du abesti berrietan”, dio Aurok.

Geure Durangaldea

Libe Mimenza Castillo
Kazetaria



Balazta

Azelerometroek ezin dute gure munduaren abiadura neurtu. Azkar baino azkarrago bizi gara. Hiriek zenbat eta tamaina handiagoa, oinezkoek orduan eta abiadura lasterragoa. Diotenez, azken hamar urtetan, %10 hazi da gure joan-etorrien abiadura.

Konpas ezberdinetan bizi gara sasoi bateko belaunaldiak eta oraingoak. Lehen, argazki-kameran klik egin eta errebelatu arte zain egoten ziren, itxarotearen artearen maitale ziren. Guk, ordea, zitzu bizian daroagu pentagramen klabea. Unean bertan, berehala, bat-batean, horixe araua mundu zabaleko konexio orotan. Pentsa, badira *Youtube*-ko bideoak azkarrago ikusten hasi direnak ere: 1,5x edo 2x arinago, abiadura gehiago behar ei dute ez aspertzeko. Hiperestimulazioaren jokoak gatibatu gaitu. *Like/share/follow* bakoitzak dopamina txute bat dakarkigu, eta neurotransmisorea elikatzen eguneraketa konpulsibotan joaten zaigu eguna. Korrika bada ere, pitin bat hemendik eta beste apur bat handik, ahalik eta gehien geureganatzeko. Badaezpada. Mugitu. Ez dezagun ezer gal. Agudo.

Bizitzak azkartu ditugu, zurrunbiloan, zerotik etengabe serotonina produkzio geldiezina. Hala ere, batzuetan paralisaren eta frenesiaren arteko belaunaldi sentitzen gara, trantsizio bat baino ez. Horregatik *demodé* zegoena berreskuratzen da erantzun kolektibo alternatibo moduan. Esaterako, *detox* digitala. Koordinatu garaikidetara egokitu nahian gabiltzan izaki erromantikoz osatutako zibilizazio nostalgikoa baino ez gara.

‘Berbaz’ aldizkaria kaleratuko du, ekainean, Sorginolako Ateneoak

Ekimena aurkezteko, ‘24 Ordu Paperean’ sorkuntza jolasa antolatuko dute astebururako; zapatuko 12:00etan hasiko da

LITERATURA • A.M.

Durangoko gazteengan irakurtzeko eta sortzeko grina pizteko helburuagaz sortu den proiektua da ‘Berbaz’. “Mikeldi, Ibaizabal, Txaman, Potzutik... hariari tiraka jarraitzeko gogo genuen, eta horrela sortu dugu proiektua”, azaldu dute Ateneotik. Aldizkaria paperean argitaratuko da. “Ezinbestekotzat genuen euskarri fisikoa izatea”. Al-

dizkariak hainbat atal izango ditu: literatura, margolaritza... eta ekainean argitaratuko den lehen alean *24 Ordu Paperean* jolasean sortutako lanak ere argitaratuko dira. Bihar, 12:00etan, abiatuko da *24 Ordu Paperean*. Sare sozialen bidez gai bat eta berba bat jakinaraziko dituzte, eta horiek abiapuntu hartuta, parte-hartzaileek testu bat osatu beharko dute 24 orduan.



24 orduan testu bat idatzi beharko dute parte-hartzaileek.

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

anboto.org
MUGIKORREAN

Albisteak eta agenda, bizkor eta eskura.

Telefono gida osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

Parte hartu, galderak eginez, erantzunak lortuz.

Pertsonalizatu, zure herria aukeratzuz.

DESKARGATU DOAN!





IURRETA

Tellitu-n
udaberrian
hasiko gara
eraikitzen

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne



DURANGO
LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,
bista ederrekin*

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

“Lau urte daramatzagu entrenatzen egun hau heltzeko zain, eta ilusio itzelagaz gaude”

Euskadiko Ligako finalari begira itxaropentsu daude Durango-Elorrio errugbi taldeko kapitain gazte biak



Martxelo Eriz Garaizabal eta Harriet Cabezas Sarasa Durangoko Arripauseta errugbi-zelaian.



Durango-Elorrio taldea 25 bat jokalarik osatzen dute aurten; aspaldiko kopururik handiena da.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Ilusionatuta dauden galdetuta, buruari eragin eta elkarri begiratu diote, irribarrez. “Lau urte daramatzagu egun hau heltzeko zain”, azaldu du Harriet Cabezasek (Durango, 2000). “Ilusio itzelagaz gaude”, gehitu du segituan Martxelo Erizek (Elorrio, 2000). Durango-Elorrio errugbi taldeko kapitainak dira eta astebete barru Euskadiko Ligako finala jokatu dute 18 urtez azpiko kategorian. Eta irabaziz gero, Espainiako txapelketara sailkatuko dira.

Durango eta Elorriok indarrak batu zituztenetik, elkarregaz aritu dira, batera igo dira mailaz maila. Urte horietan, eurek zein taldeki-deek talde batua eta gertukoa eratu dute: pieza guztiak behar den moduan koipeztatuta dituen makineria. Faktore horri aurten inoiz baino jokalarik gehiago dituztela gehitu behar zaio. “Gogoan dut iaz eta orain urte bi 14 jokalarigaz [15ek jokatzeko] jokatu izan ditugula partidua. Aurten 25 bat ditugu. Beraz, hainbeste jokalarik egoteak laguntzen du”, onartu du Erizek.

Hurrengo asteburuan jokatu dute Euskadiko Txapelketako finala. Oraindik federazioak ez ditu baieztatu tokia eta eguna. Zarautz izango dute aurkari. “Morroskoz” betetako taldea da, Cabezasen esanetan. “Euren jokalariek guk

Euskadiko Ligako finala irabazten badute, Espainiako txapelketara sailkatuko dira

baino 10 bat kilo gehiago izango dituzte, batez beste”, kalkulatu du durangarrak. Tamaina handikoa izatea abantaila da kasu batzuetan, eta desabantaila besteetan. Hori ondo dakite Durango-Elorrio taldeko jokalariek. “Ez dira oso arinak eta partiduari erritmo handia sartuz gero nekatu egin daitezke. Hori aprobetxatu behar dugu”, azaldu du Cabezasek, begirada zeruan distiratsu ageri den eguzkira jasotzen duela. “Eta zenbat eta bero handiagoa egin, orduan eta hobeto”, gehitu du. “Indarraren eta erresistentziaren” arteko borroka izango da Erizen ustez ere.

Zarautzen kontrako finala “indarraren eta erresistentziaren” arteko borroka izango da

Ordiziaren aurkako finalerdian azken minutuetan lortu zuten garaipenaren entsegua

Finalurreko estua

Joan zen asteburuan Ordizia taldea menderatuta lortu dute finalera sailkatzea. Ordizian jokatu zen partidua. Kontaktu askoko norgehiagoka planteatu zuten etxe-koek. Ostiko kolpeekin heldu ziren ordiziarren bederatzi puntuak. Durango-Elorriok entsegu biren bidez lortu zuen garaipena. Bigarrena partidua amaitzeko bost minuturen faltan heldu zen, markagailuan atzetik zihozenean. “Aurrera egin eta geneukan den-dena eman genuen azken minutuetan”, gogoratu du Erizek. Jarrera berdinez gaituriko dira Euskadiko Ligako finala irabazten.

Asteko kirolaria



GURUTZE
FRADES LARRALDE

Iurreta, 1981

Hirugarren urtez, Ironmanen munduko txapelketa izango du helburu nagusi atleta iurretarrak. Helmuga hori buruan duela dabil lanean.

“Munduko txapelketarako puntu sorta ona batzea lortu nuen eta oso pozik nago”

Hegoafrikako Ironmanagaz hasi du munduko txapelketan amaitzea itxaroten duen bidea

Joan zen asteburuan Hegoafrikako Ironmana lehiatu eta seigarren amaitu zuen. Pozik dago emaitzagaz eta batutako puntuekin.

Igeriketa saiotik oso aurrean irten zinen, 13. tokian.

Beste alderdi denetan moduan, igeriketan ere lan handia egin dut nire errendimendua hobetzeko. Azkenean, ez da berdina aurrekoengandik bost minutura edo minutu bira irtetea uretatik.

Igeriketan egin dudana saiorik onenetakoa izan zen. Postuak aurreratzeko joan nintzen. Bizikletan ere indartsu sentitu nintzen eta 90. kilometrorako oso ondo kokatuta nengoan, bederatzigarren. Gero, ahuldade une bat etorri zitzaidan, baina buelta eman ahal izan nion korrikako maratoirako.

Pozik zaude emaitzagaz?

Bai. Maila handiko lasterketa zen eta punta-puntako parte-hartzaileak aritu ziren. Emaitza ona lor-

tzea ez ezik munduko txapelketarako puntu sorta ona batzea lortu nuen seigarren tokian amaituta, eta oso pozik nago.

Munduko txapelketarako sailkapenean 32. tokian kokatu zara batutako puntuekin.

Bai, eta emakumeetan 35 lagunek parte hartzen dute. Baina oraindik bide luzea dago aurretik. Punturik gehien banatzen dituzten probak egingo ditut. Hegoafrikakoa horrietako bat zen eta Australiakoa

zein Frankfurtakoa ere halakoak dira. Hegoafrikako proban zer maila eskaini nezakeen ikusi gura nuen, estrategia bat edo bestea aukeratzeko. Izan ere, puntu kantidaden desberdinak ematen dituzten hainbat lasterketa daude. Hegoafrikakoa ondo joan zenez, seguruena Australiakoa egingo dut, ekainaren 10ean. Hawaiiako munduko txapelketarako sailkapena ahalik eta arinen lotzea ahalbidetuko lidaketan puntuak batzea izango dut helburu Australian.

Beste lasterketarik baduzu buruan?

Orain atsedena hartzea eta erreku-peratzea da behinena. Ondoren, uztailan distantzia luzeko triatloien munduko txapelketan parte hartzeko asmoa dut.

Igoera fasea segurtatuta, liga irabazteko lehenengo aukera du asteburuan Durangoko Kulturalak

Kulturalak Azkoitian irabazten badu, eta Portugaletek Basaurin galdu, ligako txapeldun izango dira durangarrak

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak Hirugarren Mailako liga txapelketa irabazi dezake asteburu honetan. Matematikak errealitate bihurtzeko lehenengo aukera izango da. Emaizta bi eman behar dira hori gertatu dadin. Kulturalak hiru puntuak batu behar ditu Azkoitiara egingo duen bisitan, eta Portugaletek, aldiz, esku hutsik itzuli behar du Basauritik.

Emaizta horiekin liga txapeldun litzateke Durangoko taldea. Edoze-lan ere, ezingo lukete lorpena zelaian ospatu, Kulturalak zapatuan jokatu duela eta Portugaletek, aldiz, domekan.

Talde batak zein besteak irabazteko partidua dituzte. Saillkapeneko behealdean dabilzanen kontra jokatu dute. Hala ere, ez dago fidatzerik. Kulturalak ondotoxo ikasi zuen ikasgai hori joan zen asteburuan. Etxean eta Getxo azken-aurreko saillkatuaren kontra, bana berdindu zuen. Zulutik irteteko puntu beharrean zetorren, eta partidua amaitzeko lau minuturen

faltan berdindu zuten partidua. “Ez dago partidua errazik gure mailan. Errazak ematen dutenak ere zailak dira. Gainera, lider gaude dinamika positibo batez, eta aurkarietat balio erantsi bat da guri irabaztea. Motibazio handiagaz jokatzeko dute”, adierazi du Igor Nuñez Kulturalerako entrenatzaileak. Aurkari-

motibazioa ulertzeko da azken 30 puntuetatik 28 batu dituen taldearen kontra.

Igoera fasea, lotuta

Liga amaieretan nagusitzen den ohiko tentsioaren barruan, Kulturalak badu Portugalete baino lasaiago egoteko arrazoi bat: dagoe-

neko segurtatu du igoera fasea. Geratzen diren partidua denak galduta ere, fase horretan egongo da, eta ez da gutxi. Hala ere, liga irabazteak abantaila handi bat du. Ondoren, kanporaketa bakar bat gaindituz gero, Bigarren B Mailara igoko litzateke. Galduz gero, aldiz, bigarren aukera bat izango luke.



Ligako azken 30 puntuetatik 28 batu ditu Igor Nuñezek gidatzen duen taldeak.

Elorrio-Parra tabernak zaleak bidelagun gura ditu geratzen diren lau finaletan

Mailari eusteko borrokan, aurkari zuzen baten kontra jokatu du asteburuan, Elorri-



Ligako azken-aurreko jardunaldian Zaragozako Pinseque taldea hartuko dute etxean.

ARETO-FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bigarren B Mailari eusteko borrokan, Elorrio Parra Tabernari lau final geratzen zaizkio aurretik. Matematikak estu daude saillkapeneko behealdean eta puntu bakoitzak berebiziko garrantzia izan dezake liga amaieran. Asteburuan aurkari zuzen bat hartuko dute etxean, eta zaleei bertaratzeko deia egin diete. Zapatuan, 17:30ean, hasiko da Elorriokoren eta Burgosko Juventud del Círculo taldearen arteko partidua, Elorrioko kiroldegian. Talde biak puntuetara berdinduta daude.

Behetik gorako bidea

Iaz, beste talde batek libre utzitako tokia baliatuz igo ziren Bigarren B Mailara. Kategoriari neurria hartzea kosta egin zitzaie eta 15 jardunaldi joan ziren lehenengo partidua irabazi zutenerako. Orduan inor gutxik usteko zuen zulutik irteteko kapaz izango zirenik. Baina jokalariek euren aukeretan sinesten jarraitu zuten eta etxea gortorleku bihurtuz —bost garaipen segidan lortu zituzten Elorrioren— azken postutik irten eta mailari eusteko borrokan bete-betean sartu ziren.

Etxetik kanpo zuten zorte txarra ere apurtu dute. Orain 15 egun denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuten Elorriotik urrun. Saillkapenaren goialdean dabilen Zierbena 3-4 menderatu zuten.

Adituaren txokoa

Kepa
Arroitajauregi
Egaña
Pilota teknikaria



Manimanoa

Martxan da banakako eskuzko txapelketa nagusia. Bizkaitarrak protagonista izatea nahi dugu bertoko pilotazaleok eta oraingoz ondo hasi dira kontuak.

Dena den, txapelketa aztertu orduko, anekdotatxo baten harira jardun nahi dut. Aurreko egun batean Banakakoa, Manomanista edo ‘manimanoaz’ berbetan aritu ginen lagun talde bat, eta askok ‘manimanoa’ esatean berba hori balekotzat ezin daitekeela hartu zioten, ea non entzun nuen nik hori, erdarakada hutsa zela. Hala al da? Balekoa da? Gure aurreragoko pilotazaleak zelan aritzen dira era modernoko ‘Banakakoaz’ berba egin nahi dutenean? Nire iritziz, ‘manimanoaz’.

Gai hori alde batera utzi eta lehiaketan murgilduta, Elezkanon II.a aitatu behar. Binakako final eskasa ahaztua ez, baina pasatua du jada zaratamoa-rrak. Arteagaren erraztasunak probestuz, baina bere lana ondo burutuz egin zuen aurrera Katedralean. Astelehenan aurkari sendoagoa du aurrez aurre: Artola. Fin dago alegiarra eta ‘etxean’ jokatzeko du, baina ‘gure pilotariak’, ezer galtzeko barik, baditu aukerak. Animo!

Danelek berarengan konfiantza osoa eduki behar dela argi utzi digun arren, Banakakoan esperantza handienak beste zaratamoa-rrak pizten dizkigu denoi. Mikel Urruti-koetxea taldeburu da eta maiztaren 1ean egingo du debuta, Atano III.ean. Topera prestatuko du lehiaketa, seguru, eta ea denok gustura uzten gaituen.

Afizionatuetan ere badute gure pilotariak helburu garrantzitsurik; hala nola GRAVNI txapelketa. Finalerdietara begira dira, artean Aspuru abadiñarra, eskuz banaka trinketea.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervi6n

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 beheka • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. 129.000€
DURANGO: 4 logela. Egongela. Sukaldea. Kanpoaldekoa. Berriztatua. 129.000 €
DURANGO: 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Kanpoaldea. 100.000€
BERRIZ: 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. 65.000€
ZALDIBAR. 2 edo 3 logelakoa. Egizkitsua. Kanpoaldekoa. Berriztatua. 100.000€
ARAMOTZ. 3 logela. Bainugela. Egongela. Kanpoaldea. 85.000€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

MADALENA. Apartamentua. Sukaldea terrazarekin. Bainugela. Egongela. Garaje eta trastelekua aukeran. 168.000€
F.J.ZUMARRAGA 130m. 3 logela.(Printzipala doblea) 2 bainugela. Sukalde-jangela. Egongela. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia bi autontzat eta trastelekua (aukera). 285.000€
LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Trastelekua eta garajea. ORAIN 206.000 €
ALLUITZ. 90m. 3 logela, bat terrazarekin. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela Handia terrazarekin. Ganbara. Garajea. 240.000 €
TABIRA. la berria. 2 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela handia. Trastelekua. Garajea. Terraza. Eguzkitsua. 245.000€
ASK. ETORBIDEA: la berria. 3 Logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Ganbara. GARAJEA. Terraza 66m2.
MATIENA. 3 logela. Bainugea. Sukaldea. 83.000€

IURRETA. 2 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela-jangela. Berogailua. 114.000€
LANDAKO (TXIBITENA). 100m. 4 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela handia. Ganbara. Garajea. Kanpoaldea.203.000 €
MADALENA. Duplexa egiteko aukera. Azken solairua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela. Garajea. Orain: 260.000€
ANTSO EZTEGIZ. 90m. 3 logela. Bainugela. Sukaldea. Egongela eta terraza. 165.000€.
SAN IGNACIO. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. Solariuma. IGERILEKUA. 235.000€

J.A. AGIRRE: Azken solairua. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Esekitekia. Egongela terrazarekin. 2 ganbara. Garajea.
BERRIZ. Txaleta. 4 logela. 4 bainugela. Egongela bi terrazekin. Sukalde handia. Garajea eta txokoa.

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIUAN

ARTEKALE: 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. 94.000 € neg.
LOCAL INVERSION. 50m2. EGOKITUA. 85.000€.
DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2.138.000 €
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m2. SALMENTA 150.000 € (Negociable)
BAIZABAL 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIURUA. 500 €.

//ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

DURANGO. Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 650€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Astarloa kalean. Hiru logelako pisua, egongela balkoiarekin, komuna eta ganbara. 90 m2.
DURANGO. Gasteiz bidean. Lau logelako pisu ederra, egongela balkoiarekin, sukalde ederra, komuna, ganbara, eta aparkalekua. Gela guztiak kalera, eta oso argitsua.
DURANGO. Uda Torre kalean. Hiru logelako pisua, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz erreformatuta. Zartzeko prest.
DURANGO. San Fausto. Logela biko pisua, sukaldea, bainugela eta logela. Merkea
BERRIZ. Etxebizitza guztiz berriztua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.
DURANGO. ARTEKALE. Azken duplex-ak, logela bikoak, bi bainugelarekin. Prezioak 179.000 €-tik hasita.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ABADIÑO. Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, bainugela, esekitekia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliar bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA. Izugarriko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 160.000 €
ATXONDO. Baserririk inguruko Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliar ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. la berria, estreinatzeke.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIUAN

ALDE ZAHARREAN. tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, Bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 2 logela
1 komun
ASKATASUN ETORBIDEA: 69 m2, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 balkoi eta ganbara
192.000€

DURANGO 118 m²
MONTEVIDEO: 118m2. Berriztatze. Gasdun eraikina. Ezkurdi plazara ikuspegia. Kontsultak eta bulegorako aproposa.
205.000€

DURANGO 3 logela
66,56 m²
GOIENKALE: 66,56 m2. 3 logela, bat berriztatua, bainugela berriztatua, sukaldea jarrita eta berriztatua, egongela. Ganbara
149.000€

DURANGO 3 logela
68 m²
KALEBARRIA: 68 m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Leihoak aldatuta eta gas natural berogailua. C.F.E.F.
125.000€

DURANGO 4 logela
80,76 m²
ARAMOTZ: 80,76 m2. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bainugela. Berriztatzeke.
119.000€

DURANGO 3 logela
1 komun
SAN FAUSTO: 3 habitaciones, sala, cocina y baño. Precisa reforma
80.000€

DURANGO 3 logela
82 m²
Komentu kalea 82m2 erabilgarri, 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta ganbara. **230.000€** +BEZatik aurrera.
230.000€

//DURANGO ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, despentsa eta igogailua. 146.000 € / E.E.Z=F

LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN 255.000€/ E.E.Z=E

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela 126.300 € / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 210.000 € / E.E.Z=E

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta balkoia 205.000 € / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 bainugela 321.500 € / E.E.Z=F

JUAN DE OLAZARAN 3 logela, sukaldea, 2 bainugela, egongela, 94m2 ko terraza eta garajea. Lehen 376.000 € Orain 369.000€/ E.E.Z=B

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela eta ganbara. 175.000euro/E.E.Z=F

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, komuna, garajea eta ganbara Lehen 270.000€ Orain 260.000 € / E.E.Z= E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta trastelekua 290.000 € / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, trastelekua eta garajea. 270.000 € / E.E.Z=E

SANTASUSANOSTE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, ganbara eta garajea 240.000 € / E.E.Z=E

SASIKOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, garajea eta ganbara 220.000 € / E.E.Z=G

URKIAGATORRE 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela 120.000 € / E.E.Z=F

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela eta garajea. 695.000 € / E.E.Z= E

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. Lehen 175.000 € / E.E.Z=E

FERIALEKU 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta garajea. Lehen 190.000 € / Orain 175.000 € E.E.Z=G

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela eta garajea. 309.000 € / E.E.Z= F

//BERRIZ
ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera 142.000 € / E.E.Z= G

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia 120.000 € / E.E.Z= F

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta garaje itxia 219.000 € / E.E.Z= E

LABAKUA KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi eta despentsa 198.000 € / E.E.Z= F

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria: Jatetxe eta etxebizitza 5 hektareako lurzoruagaz 1.200.000 € / E.E.Z= G

//BERRIAK DURANGO
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. 150.000 € / E.E.Z Bidean

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, garajea eta trastelekua. 170.000 € / E.E.Z Bidean

anboto.iragarki-laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/MEGOTOIAK	7 ASIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu: www.anboto.iragarki-laburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizita eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kortsultatu 94-621 79 02 telefonon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Berriz. Pisua salgai Berrizen, Margarita Maturana kalean. Bi logela, sukaldia eta egongela batera, komuna eta balkoia dituen behe. Trastelekua eta garajea barne, igogailuarekin. 116.000€. Tel.: 652752394

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Etxe bila nabil Durangon edo lurretan. Posible, bada hiru logelakoa. Tel.: 689-27 36 64

LOKALAK

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Abadifo. Fruta-denda traspasatzen da Muntzaratzen. Tel.: 657-77 19 28

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK OSTALARITZA

Lan bila nabil garbiketaren edo sukaldian. Lan bila nabil taberna edo jatetxeetan garbiketa lanak egiten edo sukaldari laguntzaile moduan. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-47 78 53

LAN ESKARIAK ETXKO LANAK

Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Kanpoko langilea lan bila etxeko lanak egiten edo tabernetako garbiketa egiten. Baita pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ere. Tel.: 632-19 68 33

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Pertsonak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-46 73 26

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo ordukako langile moduan. Tel.: 610-06 70 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska eskarmentuduna eta arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 643-13 01 35

Andra euskalduna lan bila. Andra euskalduna pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila dabil. Baita etxeko lanak egiten ere. Tel.: 659- 08 81 85

Lan bila nabil etxeko lanak egiten. Lan bila nabil etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak

zaintzen. Goizez zein arratsaldez bi orduz lan egiteko prest. Tel.: 655-85 79 95

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Lanaldi erdian edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 632- 66 62 13 (Dalila)

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila dabilen barneko zein kanpoko langilea naiz. Tel.: 622-23 31 71

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 643- 47 46 15

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 631-54 03 31

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 643-18 85 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan bila nabil. Kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langile moduan. Tel.: 628-78 93 50

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 682-18 12 74

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Erreferentzia onak ditut. Tel.: 602-11 70 84

Pertsonak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-11 98 45

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 690-68 73 95

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo margolari lanetan ere. Tel.: 603-40 68 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut.

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 632-77 90 80

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 691-14 17 39

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 632-08 98 52

Umeak zaintzen lan bila nabil. Lan bila nabil umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein ordukako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-72 50 54

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.:688-86 79 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 612-49 53 96

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 612-57 63 87

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutila lan bila pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atarietako garbiketa egiten ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 610-06 70 42

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoa langilea. Tel.: 689-27 36 64

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun neska lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.:691-06 21 19

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 688-44 22 90

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauzez, orduka edo

asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Kanpoko zein barneko langilea gauzez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-63 01 44

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauzez edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-11 03 94

Umeak zaintzen lan bila nabil. Kanpoko langilea lan bila dabil umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan lan egiteko prest. Tel.: 632-83 16 10

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea, gauzez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 631-76 21 47

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Gauzez, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 722-21 38 29

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Gauzez, goizez edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 631- 30 32 11

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 602-37 72 33

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Eskarmentu eta erreferentziadun pertsona lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo zerbitzari lanetan ere. Kanpoko langilea, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-28 71 29

Kanpoko langilea lan bila. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketaren, zerbitzari lanetan... lan bila nabil. Eskarmentua daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Tel.: 619-20 69 37

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest nago. Baita tabernetako garbiketa lanak egiteko ere. Tel.: 632-34 77 31

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak

zaintzen edo garbiketa lanetan. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Tel.: 744- 48 52 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Baserrietara joateko prest, gidabaimena daukat eta. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 608-60 85 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 602-13 98 07

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, goizez, arratsaldez zein gauzez lan egiteko prest. Erreferentziak ditut. Tel.: 658-99 50 63

Nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko lanetarako ere. Tel.: 688-43 03 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 664-89 92 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Esperientziadun pertsona lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-43 23 88

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea gauzez lan egiteko prest. Tel.: 602-08 96 62

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-29 16 73

Ibilgailuak

AUTOAK

AUTOAK SALDU

Renault Traffic Combi 6 Laburra salgai. Renault Traffic Combi 6 Laburra. Normala 1,9 - 100CV. 7.500€ Camper bilakatutako furgoneta urdina salgai. Atzean bola eta bizikleta-euskarria ditu, lau bizikletentzat. Jabe bakarreko furgoneta da. Easy camp modeloko abantzia prezioan barne. Tel.: 605-72 32 37



Botikak

BARIKUA, 20 - 09:00-09:00 GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	ASTELEHENA, 23 - 09:00-09:00 NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 21 - 09:00-09:00 IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-13:30 BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	MARTITZENA, 24 - 09:00-09:00 UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	EGUAZTENA, 25 - 09:00-09:00 BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	EGUENA, 26 - 09:00-09:00 BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00 SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DOMEKA, 22 - 09:00-09:00 SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUARROCHENA, LIDE Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	
09:00-22:00	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com / facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Irati (715. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, maitxia! Aitaxo eta familia osoaren partez. 9 urte jada... Maite zaitut infinito!



Zorionak, **Aimar!** Apirilaren 19an bost urte beteko ditu. Zorionak danon partez eta batez be Anerren partez.



8 urte, bikote! Zorionak, familia eta lagunaren partez. Mosu haundi bana! Ondo pasa!



Neskatxa gazte paregabea, apirilko arrosa, izarra bezain dizdizaria, txoria bezain airosa, zorionak, **Uxue Alonso**. Zorionak, prezioxa, familia guztiaren partez, mosu erraldoia ta bizipoza!



Apirilaren 19an gure **Amaian** urtegunen izen zan. lurretatik musu potolo bat eta txokolatie prestau!

Eguraldia

BARIKUA 🌧️ 25° / 15° ☀️	ZAPATUA 🌧️ 26° / 14° ☀️	DOMEKA 🌧️ 25° / 11° ☁️
ASTELEHENA 🌧️ 20° / 11° ☁️	MARTITZENA 🌧️ 17° / 10° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 16° / 8° ☁️

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

hitz liburudenda
artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
#gomendioak

Zauri Bolodia Oier Guillan (2018)
Melen labirinto Joxerra Garzia (2018)
THE NUMBER OF THE BEAST Iron Maiden (1982)

“Inoiz ez dut neure burua itsusitzat eduki, eta kameraren aurrean ondo sentitzen naiz”

Mister Espainia izatea lortu guran, Tenerifera (Kanariar Uharteak) joango da Jon Vaquerizo, apirilaren 29an. Mister Bizkaia da gaur egun, eta Durangoko taberna batean egiten du lan

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Maiatzaren 5ean erabakiko dute nor den Mister Espainia, eta han lehiatuko da Jon Vaquerizo. Modan jardutea du amets, eta aukera honek atek zabaltzea gurako luke. Esperientzia horretatik ahalik eta gehien ikastea du helburu atletismoan eta futbolean jarduten duen gazte lemoarrak.

Noiz murgildu zinen modaren eta edertasunaren mundu honetan?

Orain bost bat urte hasi nintzen castingetara aurkezten. 17 urtegez Mister Bizkaia izateko aurkeztu nintzen, baina ez nuen aukerarik izan; aurretik castinga pasatu behar zen. Mutiko bat nintzen. Gero, 21 urte izan arte ez nintzen bestelako edertasun lehiaketetara aurkeztu. Orditik aurrera, mundu honetan sartuta nabil.

Beti gustatu zaizu moda mundua?

Bai. Umetan amagaz batera ikusten nituen edertasun lehiaketak. Moda mundua betidanik iruditu zait interesgarria.

Mister Bizkaia zara urtarriletik. Maizatzean, Mister Espainia izateko lehiatuko zara. Nola ari zara prestatzen?

Azkenaldian, batez ere, gimnasioan gogor ekiten ari naiz. Janari kontua ere asko zaintzen nabil. Eguna ondo hasiz gero, ondo doa dena, baina eguna aldrebestuta hasiz gero... Tabernan egiten dut lan, askotan gauetz, eta ordutegiak aldatu egiten dira. Fisikoki ondo egoten saiatu behar dugu eta pasarelan praktikatzen egiten dugu. Desfilatzea oso garrantzitsua da.

Beraz, modu berezian zaintzen duzu elikadura.

Bai. Ondo gosalduta hasten dut eguna; ostetik, gehienez hiru orduko jaten dut. Nahiko kaloria hartzen ditut, baina garbiak. Futbolean ere jokatzeko dut eta, gimnasioan ere banabilenez, kaloria asko erretzen ditut. Behar den beste kaloria hartu

ezean, pisua galduko nuke. Gorpuzkera hobetzea eta lantzea da kontua. Silueta on eta nabarmendua lortzea.

Zaila da gorpuzkera hori lortzea?

Inoiz ez naiz izan loditzekoa. Beti jan dut gura izan dudana. Baina argi dago hobeto janzte gero gorpuzkera hobeto erantzuten duela. Tabernan lan eginda, beti dut eskura jatekoa, edatekoa... baina, azkenaldian ezer ukitu gabe nabil eta igartzen da, bai!

Zornotzako Aitor Candelasegaz lehiatuko zara, Mister Gipuzkoagaz.

Bai, lagunak eta lehiakideak gara, baina ondo daramagu kontu hori. Batak edo besteak irabazi, berdin poztuko gara. Urte askotako lagunak gara, betidanik ezagutzen dut.

Aukerarik ikusten duzu Mister Espainia izateko?

Beti dago aukera. Badakit oso zaila dela. 52 partaide gara, dena emateko prest. Baina behin loteria-ontzian egonda, aukera hor dago.

Zer da kontuan hartzen dutena? Mutil edertzat duzu zure burua?

Aurpegiera, igual. Inoiz ez dut neure burua itsusitzat eduki, eta argazki kameraren aurrean ondo sentitzen naiz. Fotogenikoa naizela esan didate. Pasarelan, berriz, ez nuke jakingo esaten zehatz zer hartzen duen kontuan epaimahaiak.

Zeintzuk dituzu indarguneak?

Bainu-jantziagaz desfilatzeko, fisikoki lan ona egiten ari naiz, eta azken egunetan gehiago landuko dut. Argazkietan ere izan dezaket aukerarik. Baina ondo landutako gorpuzkera egongo dira! Gustu kontua ere bada.

Baduzu konplexurik?

Handicap lez, igual, altuera. 1,82 zentimetrogaz, minimoen azpitik nago;

1,85-1,90 zentimetro eskatzen dituzte. Apur bat altuagoa banintz, hobeto, baina dena ezin daiteke.

Andra eta gizonen edertasun lehiaketan, alde handia da?

Lehenengoz noa, ez dakit. Andren edertasun lehiaketek oihartzun gehiago dute, bai, baina hori orekatu gura dute. Moda emakumezkoen mundua da: gainerako sektoreetan gertatzen denaren kontra, lan berdinegatik gehiago irabazten dute. Baina gizonak gero eta gehiago zaintzen gara, gehiago kontsumitzen dugu eta bide horretatik oreka lortu gura delakoan nago. Baina bide luzea dago egiteko.

Moda argi-itzalak dituen mundua dela diote. Zer usate duzu?

Ez dut aukerarik izan argi-itzal horiek ezagutzeko. Lan gutxi egin dut eta ez dakit esaten. Hala ere,

presioak ez dit estuasuna sortzen. Ez dut uste arazorik izango nuenik gustuko ez dudanari, merezi ez duenari, ezetz esateko.

Baduzu erreferenterik?

Jon Kortajarena bertakoa izanik, asko fijatzen zara; naturala ematen du. Iragarkietako modeloei begiratzeko diet asko, pasareletan ez naiz hainbeste fijatzen. Argazkietako modelo lez nahiko nuke lan egin.

Familiak, lagunak, zer diotsue?

Familiak beti lagundu dit. Lagunek ere bai, askotan adarra jo arren. Badakite mundu honetan sartu gura dudala eta aurrera egingo dudala.

Kanpotik erraza dirudien arren, dedikazioa eta ordu asko eskatzen ditu modak, baina asko gustatuko litzaidake horretan lan egitea. Tabernan inoiz esan didate bezero batzuek, “kontuz, hemen dago Bizkaiko ederrena”. Broma asko egiten dituzte gaia dela-eta!

Lauhortza

Mikel Uriguena Ruiz Irakaslea



Durangoko Udalarri

Politikariei, alkate eta zinegotzietan barne, herritarren ordezkariak zaretzen heinean, gardentasuna eskatzen zaizue. Erabakiak hartzeko eskumena zuena bada ere, herritarren onuraren pentsatzen duzuela suposatzen da. Zuen eta lagunaren interesak albo batera utzi eta herritarrenak direla zuen egiteko politikoa gidatzen dutenak. Horri esaten zaio zerbitzu publikoa. Gauzak horrela, ez zenukete inolako arazorik izan beharko zuen erabakien nondik norakoak argi eta garbi azaltzeko, ezta?

Durangok ere udal gardena izatea du helburu. Duela gutxi jakin genuen moduan, Udalsareak saritu egin du Durangoko Udala, durangar guztion hain justu, gardena izan eta parte-hartze publikoa sustatzeagatik. Eta pozik agertu zineten udal gobernuordezkariak saria eman ziguten uean.

Orduan, zer gertatzen da ba trenarekin eta trenbidearekin? Zeintzuk dira proiektuaren nondik norakoak? Zergatik entzun ditzakegu herritarren artean hainbeste iritzi ezberdin? 19 solairuko 5 dorretxe ikusiko ditugu Sasikoa kalean? Errepide berriak eraikiko dira? Ala parke erraldoia? Ezkurdi albotik ehunka kotxe pasatuko dira egunero? Bidegorri berria izango dugu trenbide zahararen ordez? Zenbat diru ari gara gastatzen? Zertan?

Ados egon gaitezke edo ez. Noski. Baina informazioa behar dugu. Argia eta garbia. Eta horren arabera erabaki. Zer deritzozue guztiok batera Durangon inoiz izan den proiektu garrantzitsuena adosten badugu? Zergatik ez herritarrei galdetu? Zeren beldur zarete? Zer gehiago dago ba jokoan?

Jon Vaquerizo Parada
Mister Bizkaia Lemoa | 1991

info@bodegaslauna.com / Tel.: 946 824 108
www.bodegaslauna.com

2017
PEÑIN GIDA
93 puntu
Gidako Errioxako
kriantzarik onena